



Astialdia eta Euskara

Euskara nola landu Astialdian



Hizpideak 2. Zk. Abendua 2007 Astialdia eta Euskara
Euskara nola landu Astialdian

Koordinazioa_Coordinación:
Ane Olabarri, Leire Calzada (Urtxintxa Eskola)
eta Jose Angel Romo (Astialdi Foroa – EGK)

Argazkiak eta grafikoak_Fotografías y gráficos:
Topagunea, Ttakun Kultur Elkarteak,
Bordatxu Gazte-txokoa, Arabako Ikastolen Federakundea,
Nafarroako Gazte Kontseilua eta EGK

Diseinua_ Diseño: A4 Estudio

Laguntzen dute:



Astialdia eta Euskara
Euskara nola landu Astialdian

Aurkibidea

0. Euskara nola landu Astialdian. Aurkezpena.	5
1. Sarrera: astialdia eta euskara. Sonia Perez Angera (Topagunea).	7
2. Hezitzaileek asko egin dezakete euskararen erabilera sustatzeko. Eli Moreno eta Aitor Uriarte (Ttakun Kultur Elkarte).	15
3. Erandioko Bordatxu Gazte-txokoaren sorrera eta ibilera. Eguzkiñe Etxebarria (Bordatxu Gazte-txokoa).	29
4. Bernedoko Gazte Egonaldiak 2007. Nagore Amondarain (Arabako Ikastolen Federakundea).	39
5. Euskararen egoera Nafarroan. Iosu Royo (Nafarroako Gazte Kontseilua).	49
6. Gazteak eta euskara astialdian. Argi eta Maia Aurtenetxe (Urtxintxa Eskola).	57
7. Hainbat ondorio, hainbat gogoeta. Ane Olabarri (Urtxintxa Eskola).	65

0. EUSKARA NOLA LANDU ASTIALDIAN

AURKEZPENA

Astialdi Foroa Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako astialdiko eskolek, federazio-koordinakundeek nahiz elkarteek eratutako gunea da. Era berean, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko lantaldea da.

Astialdi Foroaren helburuen artean astialdi hezitzailean lan egiten duten elkarteetatik euskararen erabilera sustatzea da. Horretarako tresna hauek erabiltzen ditu: alde batetik, euskararen sustapenaren alde lan egiten duten elkarte eta sareekin harremanak sendotzen eta, beste alde batetik, euskara eta astialdiari buruzko prestakuntza eta jarduerak aurrera eramaten. Hori dela eta, 2007ko maiatzean “Euskara nola landu Astialdian” jardunaldia antolatu genuen.

Jardunaldiaren helburua ea nola lantzen ari den euskara astialdian, esperientzien difusioa eta informazioaren zabalpena zen. Horretarako zenbait esperientzia aurkeztu ziren. Esperientziak lurralde eta testuinguruko ezberdinekoak ziren: Arabako Ikastolen Federakundea, Erandioko Bizkaiko Bordatxu Gazte-txokoa, Bizkaiko Urtxintxa Eskola Gipuzkoako Lasarte-Oriako Ttakun Kultur Elkartea, Nafarroako Gazte Kontseilua...

Orain esku artean daukazu liburuxka honek jardunaldian aurkeztutako esperientziak jaso ditu. Dokumentua euskara lantzeko astialdian erabilgarria izatea espero dugu.

PRESENTACIÓN

Astialdi Foroa es un grupo de trabajo del Consejo de la Juventud de Euskadi formado por escuelas de tiempo libre, grupos, federaciones y coordinadoras de grupos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.

Uno de los objetivos de Astialdi Foroa es promover el uso del euskara desde las entidades que trabajan en clave de tiempo libre educativo. Para ello se potencia la relación con otras entidades y redes que trabajan en la promoción del euskara y se desarrolla una oferta de formación y actividades en euskara. Dentro de este contexto se llevó a cabo en mayo de 2007 la jornada “cómo trabajar el euskara en el tiempo libre”.

El objetivo de esa jornada era la difusión de experiencias relacionadas con la promoción del euskara desde el tiempo libre e información sobre las mismas. Con ese fin se presentaron diversas experiencias desarrolladas en varios contextos y territorios: la Federación de Ikastolas de Álava, el Gazte-txoko Bordatxu de Erandio (Bizkaia), Urtxintxa Eskola (Bizkaia), la Asociación Cultural Ttakun de Lasarte-Oria (Gipuzkoa), el Consejo de la Juventud de Navarra...

La publicación que ahora tienes en tus manos recoge las experiencias presentadas en aquella jornada. Esperamos que este documento sea de vuestra utilidad para poder trabajar el uso del euskara desde el tiempo libre.

1. SARRERA: ASTIALDIA ETA EUSKARA



Sonia Perez Angera
Arlozabal, 8 bis, 1 – C
48.220 Abadiño (Bizkaia)
gazteak@topagunea.com

Sonia Pérez, técnica de juventud de Topagunea (federación de asociaciones de euskara), nos ofrece unas pinceladas a modo de introducción sobre qué es el ocio y el tiempo libre, y sobre la evolución y situación actual del euskara.

En esta presentación nos describe también las características de la oferta de las asociaciones que trabajan por la promoción del euskara desde el tiempo libre.

Euskararen erabilera sustatzen gabiltzanonean artean euskara eta astialdia gero eta gehiago elkarrekin edo elkartuta aurkezten diren kontzeptuak dira. Izan ere astialdiak aukera ezin hobeak ematen ditu euskararen erabilera sustatzeko. Baina, zer dela eta? Zeintzuk dira adierazpen honetan dauden oinarriak?

Galdera hauetara erantzuna ematen ahaleginduko naiz idatzi honetan. Horretarako egun euskararen ezagutza eta erabileraren inguruko datu batzuk emango ditut; eta ondoren astialdia euskararen erabilera sustatzeko tresna gisa erabiltzeko arrazoiaren azalpenak emango ditut.

Hasteko ezinbestekoa iruditzen zait eskuartearen erabiliko ditugun bi kontzeptuak definitzea: Aisia eta euskara

1. ZER DA ASTIALDIA?

Aisiaren definizioa emateko hiru dimentsio kontuan hartu behar dira:

Lehenengoa; aisiaren denbora: aisiak, okupatuta (lana edo bestelako ekintzekin) ez dagoen denborari deritzo. Horrela ulertuta aisia eta lana/ikasketak kontrakoak diren denborak dira. Bereiztu behar dira aisia eta denbora libre. Denbora libre eduki behar da ezinbestean aisiaz gozatzeko; baina libre dugun denbora guztia ez dugu aisiarako erabiliko.

Bigarrena; aisiaren bizipen subjektiboa: aisia denbora libre da, zeinetan aukera autonomoa, askatasunezkoa eta gozamen nahiz dibertimendua nagusituko den. Hauek guztiak bizipen pertsonalak direla kontuan hartu behar da.

Hirugarrena eta azkena; aisiaren jardura mota: aurreko bi dimentsioak kontuan hartuta esan behar da edozein ekintza edo jardura izan daitekeela aisiakoa baldin eta denbora librean ematen

bada eta bakoitzaren bizipen subjektiboaren arabera aukera autonomoa, askea, gozamenenezkoa eta dibertimenduzkoa bada.

Gaurko gizartearen eta bizimoduaren eraginez aisiaren definizioa aldatu egin da. Egun eskolaz gain egin behar berriak egokitzen zaizkigu pertsoneri orokorrean eta haur eta gaztetxoei bereziki. Modu honetan aisiarako denbora murriztu egiten da. Aldi berean, gero eta gehiago erabiltzen da astialdiko denbora pertsonaren garapenerako eta heziketarako. Hau da astialdi hezitzailea da gero eta gehiago proposatu eta planteatzen dena. Astialdiaren baldintzak eta ezaugarriak errespetatuz eta hauek baliatuz (denbora librea, askatasuna, gozamena eta dibertimendua) pertsonen garapena eta heziketa planteatzen da.

2. ZER DA EUSKARA?

Euskara definizioz, euskal hizkuntzaren izena da. Hots, Euskal Herriko hizkuntzaren izena. Baina definizioa fintzeko esan dezaket Hizkuntza bat mundua ulertzeko modu bat dela. Munduan 6800 hizkuntza inguru hitz egiten direla diote hizkuntzalariek¹. Hortaz, hizkuntza bat aniztasun adierazlea ere bada.

Azken honi jarraikiz, euskara giza hizkuntzen artean bat da; bakarra eta errepika ezina. Euskara hiztun komunitate baten memoria da. Euskara mundua ulertzeko modu bat da. Komunitate baten ahotsa. Komunitate bati identitatea eta izaera ematen dion hizkuntza. Baina batez ere euskara komunitate baten komunikazio tresna da; lanerako, astialdirako, bizitzeko, gozatzeko eta izateko modua.

Aurretik aipatu dudan moduan hizkuntzalariek bat egiten duten adieraztean munduan 6.800 hizkuntza inguru hitz egiten direla. Horietatik asko desagertzeko arriskuan daude. Izan ere urtero bataz beste hamar hizkuntza desagertzen baitira eta prozesu hau azkartzen ari da. Hizkuntzalariek aurreratzen dute XXI. mendeko gaitzik handienetarikoa izango dela hain zuzen ere hizkuntzen galera eta desagertzea.

Hau guztia kontuan hartuz puntu honetan egokia deritzot egun euskararen egoera zein den aztertzea.

Hizkuntza bat mundua ulertzeko modu bat da

¹ Sharing a world of difference: the earth's linguistic, cultural, and biological diversity, UNESCP-Terralingua-World Wide Fund for Nature, 2003. / Herri eta hizkuntzen ekologia, Amaia Antero 2005.

3. ZEIN DA EUSKARAREN EGOERA?

Edozein hizkuntzaren premia hitzunak dira. Eta euskararen egoera ezagutzeko duen hitzun

Lurraldea/urtea	1986	1991	1996	2001
Araba	%06.07	%08.60	%14.60	%16.20
Bizkaia	%17.50	%18.90	%23.70	%25.00
Gipuzkoa	%43.50	%45.90	%49.70	%51.50
Iparralde	----	%29.20	%24.50	%22.80
Nafarroa	%10.20	%10.20	%10.90	%11.80
EUSKAL HERRIA	%22.80	%23.60	%26.70	%27.60

kopurua eta hauen izaera ezagutzea ezinbestekoa da. Euskaren egoera zein den azaltzeko saiakera xumea (eta azalekoa) egingo dut. Horretarako euskararen ezagutza datuak eta euskararen erabilera datuak baliatuko ditut.

Euskararen ezagutza datuen² arabera ezagutza portzentajeak gora egin du azken urteetan etenik gabeko prozesu batean. Ondoko taulak datu esanguratsuak eskaintzen ditu:

Taulako datuetan ikus daiteke Euskal Herrian orokorrean euskararen ezagutzak etengabeko goranzko joera bat izan duela. Joera hau errepikatu egiten da lurraldeka ere, Iparraldean ezik. Azken honetan ezagutzaren datuek beheranzko joera aurkezten dute. Duda barik ezagutzak gora egin du batez ere bi faktoreei esker: batetik, hezkuntzaren bidez martxan jarri izan den euskalduntze prozesuari esker. Bestetik, helduen euskalduntze eta alfabetatze prozesuari esker.

Euskararen erabilera aztertzeko azken euskararen kale erabileraren neurketak³ emandako datuak erabiliko ditut. Datu horiek 2001. urtean egindako neurketak eman zituen datuekin alderatuko ditut.

Erabilerari dagokionean, Euskal Herri mailan eta orokorrean euskararen erabilerak azken bost urteetan (2001 eta 2006 bitartean) gora egin du % 0.7an. 2001ean euskararen erabilera % 13.5ekoa zen eta egun erabilera % 14.2koa da.

Orokorrean datuak positiboak badira ere emaitza ezberdinak dira lurraldez lurraldeko egoerari erreparatuz gero:

- **Araban** azken bost urteetan erabilerak gora egin du % 1.4an (%3.3tik % 4.7ra)

- **Gipuzkoan** ere erabilerak gora egin du % 20.8an (% 29.9tik % 32.7ra). Gipuzkoak izan du erabilerari dagokionean lurraldeen artean igoerarik nabarmena.

² Euskal Herriko soziolinguistika inkesta (Eusko Jaurlaritz, Nafarroako Gobernua eta Euskal Kultur Erakundeak egina, 2001ean)

³ Soziolinguistika Klusterra, euskaren erabileraren V. kale neurketa 2006.

- **Nafarroa Garaian** erabilera berdina mantendu da (% 6.6)

- **Bizkaian** aldiz erabilera beherako joera nabaritu da azken bost urteetan (% 11.0tik % 10.4ra). Modu honetan Bizkaian azken urteetako goranzko joerarekin apurto egiten dela diote datuak. Hala ere, aztertzea da benetan beheranzko joera hau ematen ari den. Izan ere aurreko badirudi 2001. urtean egindako neurketaren emaitzek erabileraren gehiegizko igoera adierazi zutela. Eta oraingo datuak, errealitatek gertuago daudela ordukoak baino.

- **Iparraldean** ere erabilerak azken urteetako joerari jarraituz erabilerak behera egin du % 1.2an. Iparraldean 1993tik beherako joera igarri da % 5.8 tik 4.6rako jaitsiera eman da. Hau ezagutza datuekin bat datorren joera da.

Neurketak eman dituen datuak adin tarteka aztertuz gero ere ezberdintasunak nabaritzen dira:

Haurren taldean (2-14 urte) Euskal Herri mailan euskaren erabilerak gora egin du % 1.8 (2001ean %19.0tik 2006an % 20.8).

Hala ere datuak lurraldeka aztertuz gero alde handiak nabari dira: Araban goranzko joera esanguratsua eman da (% 2.4koa). Gipuzkoan ere gauza bera gertatu da (% 5.9ko igoera). Nafarroa garaian (% 0.1), Bizkaian (% 0.6) eta Iparraldean aldiz (% 1.2) haurren artean euskararen erabilerak behera egin duela diote datuek.

Gazteen taldean (15-24 urte) Euskal Herri mailan euskaren erabilerak gora egin du % 0.2. Hala ere azpimarratu egin behar da gazteen artean erabilerak azken urteetan jasan izan duen gorako prozesua asko moteldu dela (1997an % 11.9, 2001ean % 13.6 2006an % 13.8).

Hala ere datuak lurraldeka aztertuz gero aldeak nabari dira: Araban goranzko joera esanguratsua eman da (% 2.9koa). Gipuzkoan ere gauza bera gertatu da (% 1.4ko igoera). Nafarroa garaian (% 0.8). Bizkaian aldiz erabilerak behera egin du (% 1.4) eta Iparraldean adin tarte honetan bakarrik nabari izan da goranzko joera (% 0.9koa) haurren artean euskararen erabilerak behera egin duela diote datuek.

Helduen taldean (25-64 urte) Euskal Herri mailan euskaren erabilerak gora egin du % 1. (2001ean % 11.3 tik 2006an 12,3ra).

Lurraldeko ordea, ondoko datuak eman dira: Araban helduen artean euskararen erabilerak gora egin du % 1.3. Gipuzkoan ere erabilerak gora egin du(% 3.8). Nafarroa garaian (% 0.4), Bizkaian (% 0.2) eta Iparraldean (% 1.3) aldiz euskararen erabilera jaitsi egin da.

Begi bistakoa da euskararen ezagutza eta erabileraren artean orekarik ematen ez dela

Azkenik **adinekoen (65...) taldeko datuak** aipatuko ditut. Euskal Herri mailan euskaren erabilerak behera egin du % 1.4 adinekoen taldean. (2001ean % 12 tik 2006an 10.6ra).

Lurraldeka emaitzak honakoak izan dira: Araban % 0.1a , Gipuzkoan % 2.7a, Bizkaian % 2.3 eta Iparraldean % 1.3a jetzi da euskararen erabilera. Nafarroa garaian ordea, adinekoen artean erabilera 0.5a igo da.

Datu hauek guztiak ikusi ostean (eta kontuan hartuta datuak hotz hotzen interpretatzea akats handia izan daitekeela) berehala hainbat gogoeta etortzen zaizkit burura:

- Begi bistakoa da euskararen ezagutza eta erabileraren artean orekarik ematen ez dela. Hau da, euskara ez dela erabiltzen jakiten denaren adina. Izan ere 2001ean (ezagutzari buruzko ditugun azken datu ofizialak) euskararen ezagutza % 26,70 bazen ere, urte berdinean erabilera % 13.5 ekoa zen; egun % 14.2koa.
- Hala ere datuok ez nituzke modu negatiboan hartuko. Egiteko handia gelditzen den arren, pausoak edo urratsak (nabarmenak esango nuke) eman dira. Eta bide horretan jarraitu beharra dago.
- Ezagutzari dagokionean indar handia jarri da hezkuntzan eta helduen euskalduntze alfabetatzean eta duda barik, hauek etekinak eman dituzte. Hala ere hizkuntzaren ikasketa prozesuak gizabanakoaren ingurune naturalean eduki behar du jarraipena. Euskara eskolatik eta euskaltegietatik kalera atera behar da.
- Ezagutza eta erabilerarako hizkuntza ohituretan gero eta lehenago esku hartzen bada, etorkizuneko gizarte gero eta euskaldunagoa izango da. Ildo honetatik jarraituz azpimarratu nahi dut haur, gaztetxoak eta gazteak euskalduntzeko astialdiak eta astialdiko ekintzek eskaintzen duten aukera.

4. AISIA EUSKARAZ BIZI...

Ezagutza eta erabileraren arteko oreka eman dadin, ezagutza bermatuko duen hezkuntza eredua izateaz gain, euskara eskolatik, eskola orduetatik eta erabilera formaletik ere atera beharra dago. Hizkuntzak erabiltzeko dira eta egiteko hau ezin daiteke eskolaren baitan bakarrik utzi. Derrigorrezko hezkuntzan haur edo gazte batek pasatzen duen urteko denboraren proportzioa guztira esna dagoen denboraren %12 baino ez dela kontuan hartuz (batzbeste urteko 178 egun eta eguneko sei ordu ematen dituzte eskolan), gainontzeko denbora (denbora librea) bestelako esparru batzuek eskaintzen dizkieten jardueretan igarotzen diru haur edo gazteak, adin eta zaletasunen arabera bat edo beste nagusituz: haurtzaroan, familia; gaztetan, lagunartea, bikotea, kirol eta astialdi taldeak... Esparru guztiek dute garrantzia eta denak euskalduntzea ezinbestekoa izango da haur eta gazteak euskalduntzeko.

euskara eskolatik, eskola orduetatik eta
 erabilera formaletik ere atera beharra dago

Astialdian, hizkuntzaren erregistro ez formalak lantzen dira nagusiki, egoera bakoitzerako erregistroak moldatuz (familiarako, jolasteko, lagunarterako, haserretzeko, ligatzeko...). Komunikazio aukera berriek hizkuntzarekiko motibazioan eragin zuzena dute eta horrek, era berean, erabilera eta gaitasunean. Hizkuntza baten jabe izateko, hau da, hizkuntza bat ezagutu eta hitzun komunitateko kide izateko, norbanako horrek darabiltzan funtzio sozial guztietan komunikatzeko gaitasuna izan behar du eta, beraz, ezinbestekoa da erabilera askeko esparruetan moldatzeko gai izatea. Erabilera bultzatzea eremu horietan hitzunak sortzeko ahalegina ere bada.

Astialdiaren esparrua aipatzean bidezkoa iruditzen zait esparru horretan gizarte ekimenak izan dituen eta egun dituen garrantzia eta eragina azpimarratzea. Hainbat dira eskolaz kanpoko ekintzen esparruetan urteetan lanean diharduten elkarte, erakunde eta taldeak. Horiek guztiek astialdiaren esparru guztietan euskararen erabilera lantzeko ahalegina egin dute.

Gizarte ekimenen artean Euskara elkarteek aipua egitea ere ezinbestekoa egiten zait. Hainbat dira astialdiaren esparrua lantzen duten euskara elkarteak. Asko dira hauek astialdiko aukera euskalduna eta duina eskaintzearen lanean eman dituzten urteak eta inbertitu dituzten indarrak. Horiek guztiak ongi merezi dute idatzi honen lerro batzuek!

5. EUSKARA ELKARTEEN ASTIALDIKO ESKAINTZA

Banakoen arteko elkar ekintzak dakar hizkuntza baten erabilera. Eguneroko bizitzan gizarte sareak sortzen eta osatzen ari dira etengabe. Jaiotzetik, gizarte sare askotako partaide bihurtzen da norbanakoa. Urteak pasa ahala, norberak harreman sareak aukeratzen ditu. Astialdia edo kultur animazioaren sareen metodologian, analisiaren oinarritzko unitatea ez dira norbanakoa parte hartzailea eta bere ezaugarriak, parte hartzaileen arteko harremanen loturak baizik. Haur eta gazteen artean euskararen erabilera eragitea eta beraien harreman sarea euskalduntzea da ezagutza eta erabileraren arteko oreka aurkitzeko estrategia: harreman sarea osatzen duten lagunen arteko komunikaziorako tresna euskara izatea. Harreman sare horietan dauden eragile edo antolatzaileei aisiari jartzen dizkioten balio hezitzaileen artean, “edukien” artean, euskarari funtzio berriak zabaltzearena dago.

Demagun norbanakoaren garapen prozesua kate luzea dela. Pertsonaren garapen prozesuak berezkoa du katebegien arteko lotura, hau da, modu naturalean ematen da garapen fase batetik hurrengorako pausoa.

Haur eta gaztetxoek astialdiko baliabide
batetik bestera pasatzeko zubiak eraiki behar
dira

Katearen eredia euskara elkartearen oinarri teorikoetara aplikatuz, euskararen erabilera suspertzeko tresna gisa astialdia darabilenak etenik gabeko aisiako aukerak sortu beharko ditu, hau da, haur eta gazteen garapeneko aro guztietara egokitutako aisia kate luzea eratu beharko du.

Horretarako, lehenik eta behin, etenak non diren aztertu behar da eta, ondoren, baliabideen arabera, etenak dauden lekuetan katebegi berriak ezarri. Gero, katebegi berria aurrekoarekin eta atzekoarekin ondo lotzea garrantzitsua da, katebegi batetik besterako pausoa ahalik eta modu naturalenean eman dadin. Haur eta gaztetxoek astialdiko baliabide batetik bestera pasatzeko zubiak eraiki behar dira. Etenik gabeko kate luze horren helburua haur eta gazteen hizkuntza ohituratan eragitea da.

Astialdiko jardueretako partehartzailea den haurra euskararen erabiltzailea den gaztea izatea iristea da helburua.

Euskararen erabiltzaile kopurua gehitzea erronka nagusia bada ere, erabiltzaileen artean, motibazioa gehien dutenei euskararen erabilera suspertzeko eragile aktiboak bilatzeko aukera eskainiko zaie. Euskara Elkartearen astialdiko ekintzetan hezitzaile, dinamizatzaile, begirale izateko aukera izango dute. Hezitzaileak haur eta gaztetxoentzako erreferentzia eta eredu bihurtzen dira. Erreferentzia eta eredu euskalduna.

Euskara elkarteetan sortzen diren astialdiko jarduerak badute bereizgarriak. Ondokoak dira esanguratsuenak:

- **Plangintza sendo eta jarraian kokatutako aisiako eskaintza:** haurtzarotik hasi eta heldutasunera arte luzatzen den eskaintza da, eta noizbehinkako ekintzetatik hasita, jarraitua den eskaintza lehenesten du.
- **Herritartasunean oinarritutako aisiako eskaintza:** herritik sortua, herriari begira landua eta eskainia eta herrian erreferentzia izatea lortu duen eskaintza.
- **Sormenezko aisiako eskaintza:** helburu berdina lortzeko hamaika modu lantzen dituen eskaintza; jaialdiak, tailerrak, hitzaldiak, lehiaketak, udalekuak, negulekuak, ludoteka, gaztelekuak...
- **Malgua den aisiako eskaintza:** helburua zurrin eta zuhur mantenduz, egoera eta behar berrietara egokitzeko gaitasuna duen eskaintza. Euskara eta euskal kultura joera berriekin uztartuz lantzen den eskaintza.
- **Kalitatezko aisiako eskaintza:** profesionalak diren hezitzaileak, aisian adituak eta arituak izateaz gain, euskara eragileak dira.
- **Aisiako eskaintza anitza eta integratzailea:** egungo gizartearen beharrei aurre egiteko diseinaturiko eskaintza zabalak.
- **Aukera berdintasunean oinarrituriko aisiako eskaintza:** herritar guztiei zabalik eta herriko taldeak elkartzeko helburua duen eskaintza.

- Tokian tokiko berezitasunak errespetatzeko eta sustatzeko sorturiko Euskal Herri mailako aisiako eskaintza antolatua.

Hau horrela izanik Euskara Elkartek haien astialdiko eskaintza definitzeko ondoko leloa erabiltzen dute: **“Aisiaz goatzeko hamaika arrazoi eta mila aukera”** Euskara Elkartearen aisiako eskaintza⁴ hamaika ezaugarrietan laburbildu daitekeelako eta eskaintzen hartzen duen formatuen zerrenda zabala delako.

Dena den euskara elkarteetan (gainontzeko astialdiko erakunde eta taldeetan bezala) badugu aurrera begira erronka handia: astialdiko esparrua benetan onartua izan dadila eta benetako aitortza izan dezala. Hori dela eta aprobeztatu nahi dut aukera gaiaren gaineko gogoeta planteatzeko.

6. ASTIALDIA: AITORTZARIK EZ DUEN ESPARRUA!

Azken urteotan asko eta maiz hitz egiten da astialdiaz eta aisiako ekintzetaz. Esparru ugarietatik egiten zaio erreferentzia astialdiari eta honek euskararen normalizaziorako izan dezakeen eraginari. Baina finean asko aipatzen den arren, aitorten gutxi duen esparrua dela adierazi behar da.

Eta aitorten ezaren ondorioz esparruak ez du iraunkortasunik ez eta egonkortasunik alor askotan. Hezitzaileen esparruan ordaintzen diren soldatak txikiak izaten dira eta langileen baldintzak eskasak. Honek eragiten du langileen iraupenean. Eta orokorrean oso hezitzaile gutxi ikusten du arloa ogibide gisa. Iraupen motzeko irtenbide gisa baino. Ondorioz hezitzaileen eskarmentua ere gero eta txikiagoa da. Kasu askotan honen islak ekintzaren kalitatean eta helburuen lorpenean eragiten du.

Ikus daitekeenez gurpil zoroan sartzen gara eta hortik ateratzeko eman beharreko lehengo pausua esparruaren benetako aitorpenean dago. Esparruari sor zaion begirunea, dedikazioa eta aurrekontua ematea garrantzitsua izango da. Aurrerapausoa dudarik gabe. Ondoren emango baita hezitzaileen formazioa gehitzea, hezitzaileen espezializazioa, lan baldintza eta soldata duinak finkatzea, langileen egonkortasuna eta eskarmentua... eta abar luzea. Finean eskaintzaren kalitatean eta eraginkortasunean eragina izango dutenak.

Esparruaren aitortenak lan egiteko baldintza berriak ekarriko ditu. Euskararen erabilera eragiteko baldintza eta aukera hobeak.

Hausnartu dezagun; izan ere aisia euskaraz bizitzea jolasa baino gehiago baita!

⁴ Astialdia euskararen erabilera sustatzeko tresna gisa erabiltzeko Euskara Elkartearen oinarri teorikoa eta astialdiko eskaintza. Abian! Haur eta Gazte ekintzak martxan jartzeko gidaliburua. Topagunea . 2006.

2. HEZITZAILEEK ASKO EGIN DEZAKETE EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO



Eli Moreno – Aitor Uriarte
 Geltoki kalea 4, behea
 20.160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
 zerbitzuak@ttakun.com

Ttakun es una asociación cultural de Lasarte-Oria con una larga experiencia sobre el uso del euskara y su promoción desde el tiempo libre. Fruto de esta experiencia surge el proyecto “Hezitzaileek asko egin dezakete” (los-as educadores-as pueden hacer mucho) que analiza la importancia de las personas referentes en un contexto de educación no formal para la promoción del uso del euskara entre jóvenes.

En colaboración con el Departamento de Euskara y Juventud de la Diputación Foral de Gipuzkoa, Ttakun ha desarrollado una metodología para la promoción del uso del euskara a través de actividades extraescolares. En esta metodología el educador o la educadora son el motor de todo el proceso, que tiene partir de un análisis exhaustivo para poder marcarse unos objetivos claros. En todo el proceso se tienen que marcar esos objetivos, que deben ser asequibles y consensuados por el grupo. Una vez realizados estos pasos previos, se tiene que provocar una situación de desequilibrio en el grupo con el fin de pasar de una realidad de uso del idioma a otra.

En el siguiente artículo nos presentan los diferentes aspectos que deben ser tenidos en cuenta a la hora de llevar a cabo la planificación y puesta en marcha de un proceso de promoción del uso de euskara en el tiempo libre.

Ttakun Kultur elkarteak urteetan izandako esperientziaren arabera eta, euskararen erabilera sustatu nahian emandako pausoez erakusten digutenez, gazteen euskararekiko jarrerak lantzea ondo dago: euskarak bizi duen egoeraren zergatia ulertzea, euskararen aldeko jarrerak lortzea, eta abar. Baina euskararekiko jarrera on bat edukitzea ez da beti euskara erabiltzearekin lotzen. Gazteek euskararen aldeko jarrera eduki dezakete baina beraien artean guztia edo ia guztia erdaraz egin. Eta hori ez da soilik horrela gazteen kasuan izaten. Helduen kasuan ere askoren kasuan gertatzen da.

Hori kontuan hartuz, *Hezitzaileek asko egin dezakete* proiektuaren abiapuntuak bi dira:

- 1- Gazteei euskarazko jarduerak eskaini behar zaizkie, euskara erabiltzeko esparruak. Eskola orduz kanpoko jardueretan gazte askok parte hartzen dute. Jarduera horiek euskaraz aritzeko esparru ezin aproposagoak dira.

- 2- Euskara erabiltzeko esparruak edukitzeak ez du esan nahi euskara erabiliko dutenik. Jarduera horretako hezitzailea da erabilera sustatzearen arduraduna. Hortik proiektuaren izenburua: *Hezitzaileek asko egin dezakete*.

Hezitzailea baldin bada erabilera sustatzearen arduraduna, horretarako estrategiak eta tresnak behar ditu. Soziolinguistikak oso ondo azaltzen du zein garrantzitsua den euskararen erabilera sustatzea, baina ez du esaten nola. Askotan hezitzaileek intuitiboki egin dute lana, eta erabilitako tresna eta estrategiekin, askok asmatu dute baina gaizki ere gauza asko egin izan dira. Hezitzaileek asko egin dezakete proiektua hutsune hori betetzera dator. Euskararen erabilera era sistematiko eta planifikatu batean antolatzeko.

Ttakun Kultur Elkartek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara eta Gazteria Sailekin elkarlanean, eskola ordur kanpoko jardueretan hezitzaileek euskararen erabilera sustatu dezaten metodologia bat garatu du: errealitatearen azterketan kontuan hartu beharrekoak, hortik helburuak zehazteko modua eta erabileran eragin ahal izateko estrategia eta tresna zehatzen proposamena.

Eskola ordur kanpoko jarduerak hizkuntzaren erabilera lantzeko gune aproposa da gazte askok parte hartzen dutelako eta era berean, gazteek aukeratzen dutelako gustuko dutenaren arabera zein jardueretan aritu. Horretaz gain, jarduera horietako hezitzaileak orokorrean gazteentzat erreferente erakargarriak izaten dira.


Egoera hori kontuan izanik, hezitzailea da hizkuntza erabileraren motorra eta hurrengo lerroetan azalduko dugun moduan prozesu bat hasi beharko du, metodologia jakin bat jarraituz. Baina guztia ez da hizkuntza bera izango, horri eragiten dioten hainbat faktore ere kontuan izan beharko ditu. Eskola-ordur kanpoko jardueretan hizkuntzazko helburuak lantzeko, lau faktore hauek hartu behar dira aintzat: komunikatzeko gaitasuna, euskara erabiltzeko iniziatiba, jardueraren intentsitatea eta gazteen eta hezitzaileen arteko harremana.

Hezitzaileak erabilera lantzeko hizkuntza helburuak jarriko dituzte, hasierako hizkuntza errealitatea eten eta beste errealitate batera iristeko asmoz. Horretarako, ordea, desoreka sortu behar da taldean, aurrez aipatutako lau faktoreak oso kontuan hartuaz.

Beraz, hezitzaileak bere taldearekin egin beharreko prozesu guztia honakoa da; taldearen errealitate linguistikoa aztertu komunikazio gaitasuna eta erabiltzeko iniziatiba bidez, taldea dagokion erabilera-urratsean eta interbentzio eremuan kokatuko dugu. Hala ere, markatutako helburua lortzeko interbentzio eremuan lanean hasi aurretik, jardueraren intentsitatea eta taldeko hezitzailearekin duten harremanen faktoreak oreka egokian ditugun aztertu beharko da. Eta hala ez bada, behar dugun modura egokitu.


Ondoren, hurrengo lerroetan ditugun estrategia eta tresnak erabiliko dira taldeari jarritako helburua lortzeko. Eta azkenik, helburuak lortu hala ibilbide zikliko guztia osatu arte behin eta berriz bidea egin erabilera naturalera arte.

hezitzailea da hizkuntza erabileraren motorra



Lau faktore horietan, bi hizkuntzarekin zerikusia dutenak dira: komunikatzeko gaitasuna eta euskara erabiltzeko inizatiba, hain zuzen. Bi faktore horien azterketak hasierako errealitatea emango digu eta taldea erabilera-urrats (hizkuntzarekiko harremana) batean kokatuko du.

Beste bi faktoreak, **jardueraren intentsitate** eta **gazte eta hezitzaileen arteko harremanak**, ez dira berez hizkuntzaren parte, baina bai oso kontuan gartu beharrekoak, hizkuntzazko helburuak lortzeko sortu behar den desoreka dela kausa. Egoera berri hori sortzeko eta guk nahi genukeen moduan bideratzeko, azken bi faktore zaindu behar dira, jardueren intentsitatea eta hezitzaileak gazteekin duen harremana.



1. JARDUERAREN INTENTSITATEA

Jardueraren intentsitatea handia bada (edota desoreka sortu nahi delako intentsitatea indartzen bada), errazagoa izango da desoreka sortzea eta ondorio onak ateratzea. Jardueraren intentsitatea txikia bada, aldiz, oso zail gerta daiteke helburuak lantzea, eta, gainera, kontrako eragina ere izan dezake ahaleginak: gazteek gal dezakete jarduerarekiko interesa, ekar dezake hezitzaileak jardueran hizkuntzazko helbururik landu nahi ez izatea eta abar. Jardueraren intentsitatea, beraz, oso faktore garrantzitsua da hizkuntzazko helburuak lantzean.

Jardueraren intentsitatea hiru mailatan banatzea proposatzen da:

- Intentsitate handia
- Intentsitate ertaina
- Intentsitate txikia

Hizkuntzazko helburuak landu aurretik neurtu behar da jardueraren intentsitatea. Intentsitate hori helburua landu ahal izateko ez bada nahikoa, indartu egin beharko da. Intentsitatearen oinarrian, jarduerarekiko motibazioak daudenez, motibazio horietan eragin beharko da intentsitatea handitzeko.

Hiru dira jarduerarekiko motibazio nagusiak:

- Motibazio instrumentala: Jarduerako parte-hartzaileak atsegin bat hartzen du aktibitateetik; hots, parte-hartzaileari pozbide edo gogobetegarri gertatzen zaio aktibitatea.
- Motibazio integratzailea: Motibazio integratzailea harreman-sareari dagokion motibazioa da; hau da, pertsonak taldeetan integratzeko eta taldekide sentitzeko izaten duen beharrari buruzkoa.
- Motibazio komunikatiboa: Gizakiak, bestalde, gauzak adierazteko eta komunikatzeko beharra ere izaten du. Bada, behar horixe izaten da eskola-orduz kanpoko jarduera batean parte hartzeko beste motibazioetako bat. Bertan taldekideekin komunikatzeko aukeraz gain, erreferentziazko beste banako batzuekin erlazionatzekoa ere tartea baitute, hezitzaileekin batik bat. *Hezitzaileek asko egin dezakete proiektuan*, motibazio komunikatiboa hezitzailearen ikuspegitik erabiliko da batez ere.

Hizkuntzako helburuak landu aurretik neurtu
behar da jardueraren intentsitatea

2. GAZTEEN ETA HEZITZAILEAREN ARTEKO HARREMANA

Hezitzailearen esku dago helburuak zehaztea, estrategiak aplikatzea, lorpenak ebaluatzea eta abar. Horretan guztian, ordea, berebiziko garrantzia du gazteen eta hezitzailearen arteko harremanak.

Hezitzaileak erreferentzia positiboa izan behar du gaztearentzat. Erakargarri eta egoki gertatu behar zaizkio gazteari, bai bien arteko harremana, bai hezitzaileak transmititzen dizkion balioak. Hezitzailea erreferentzia positiboa izango bada, nahitaezko gorabehera da hurbiltasuna. Hezitzailearen prestasunaren bitartez lor daiteke hurbiltasuna: aldez edo moldez, gazteek konturatu behar dute hezitzailea “busti” egiten dela haiekiko erlazioan.

Hezitzaileek gazteekin duten harremana ebaluatzeko, hiru maila bereiz daitezke:

Hezitzailea ez dago onartua; hezitzailea onartua ez egoteak ez du esan nahi jarduera ezin denik aurrera atera. Jarduera arautua gauzatuko da, baina gazteek jarduerarekiko atxikimendu handia izan beharko dute, zeren osterantzean oso zaila baita berentzat balekoa ez den hezitzaile batekin aritzea.

Hezitzaile onartuaren kasuan, jarduera normaltasunez gauzatuko da, baina gazteek ez dute hezitzailearengan berentzat baliokoa den pertsona bat ikusiko, jarduera aurrera ateratzeko beharrezkoa den norbait baizik.

Hezitzailea erreferentea bada, ordea, hezitzaileak balio handia izango du gazteentzat, eta harremana aberatsa izango da. Hezitzaileak oso leku egokia beteko du taldean, jardueran hainbat helburu proposatu ahal izateko.

Erreferentziatzko gorabehera horretan, bada, dena dela, erreferente bakarrik izatetik haratagoko gradu bat: aszendentziatzko erreferentea izatea, hain zuzen. Hezitzaileak hori lortuz gero, gazteek aintzat hartuko dituzte haren iritzia eta eginahala. Baina horretarako hezitzaileak inplikatu egin behar du elkarrekiko erlazioan, eta egiteko hori ez du burutuko gazteen jokamoldeak behin eta berriro helduen ikuspegitik epaituz.

Jardueraren intentsitate eta gazte eta hezitzaileen arteko harremanak, bi faktore horiek orekan ditugunean, hau da, hezitzailea gazteentzat erreferente eta jardueraren intentsitatea handia izan behar denean, hizkuntza helburuak lantzen hasiko gara.

Helburuak eta erabili daitezkeen estrategiak erabakitzeko, hasierako errealitatearen azterketa egin behar da **komunikatzeko gaitasuna** eta **euskara erabiltzeko iniziatiba** faktoreen bidez. Horrekin, taldea erabilera-urrats batean kokatuko dugu. Ondoren ikusi ahal izango da zeintzuk diren talde horrentzako jarri daitezkeen helburuak.

3. KOMUNIKATZEKO GAITASUNA

Euskaraz komunikatzeko gaitasun gabeak

Horrelako gazteek ez dakite euskaraz; ez dira euskaraz espresatzeko gai. Oro har, gainera, ulertu ere ez dute egiten.

Euskaraz oso nekez komunikatzen direnak

Horrelako gazteak zailtasun handiz espresatzen dira euskaraz. Hau da, hitz eta esaldi bakan batzuk esaten asmatzen dute, baina gaitu gabe daude gutxieneko diskurtso bat taxutzeko, elkarrikerak xumeak burutzeko eta abar. Ez dute aski baliabide nahi dutena adierazteko: euskararen oinarritzko morfologia, lexikoa, sintaxia... bereganatu gabe dauzkate. Ulermenari dagokionez, azaldu beharrekoa argi eta astiro samar azalduz gero eta beren arreta lortuz gero, asmatzen dute gauzak testuinguruan aski ongi ulertzen.

Euskaraz nekez komunikatzen direnak

Aurrekoak ez bezala, gai dira gutxieneko diskurtsoak osatzeko eta hizketaldiko hariari jarraitzeko, baina, euskaraz ari direnean, oraindik pisua hartzen dute beren jatorrizko hizkuntzako egiturek, ahoskerak, semantikak eta abarrek. Hainbatetan, kodeak nahasten dituzte; ongien menderatzen duten hizkuntzako arauak erabiltzen dituzte euskarara aldatuta. Ulermenaren aldetik, oro har, aski ongi moldatzen dira testuinguruan bizkor ulertzeko.

Euskaraz motel komunikatzen direnak

Ongi komunikatzen dira euskaraz, baina arintasun gutxirekin. Oro har, ahozko euskarari baino idatziari lotuagoa dagoen mintzamoldea erabiltzen dute; formalegia-edo. Ez dakite hizkuntzako erregistroak bereizten; beren jatorrizko hizkuntzako makulurik baliatu ezean, kale egiten die espresibitateak eta abar.

Euskaraz erraz komunikatzen direnak

Ongi komunikatzen dira euskaraz, eta erraz aritzen dira hizkuntza horretan. Era horretako hiztun gazteek egoki baliatzen dute hizkuntza egoera formaletan eta informaletan, nahiz eta, euskararen egoera soziolinguistikoa dela bide, albo erdaren eragina igartzen zaien (egoera informaletan, batik bat).

4. EUSKARA ERABILTZEKO INIZIATIBA

Hezitzaileak hartzen du

Euskara erabiltzeko inizatiba hezitzaileak hartzen duela diogunean, honako hau adierazi nahi dugu: gazteek ez dutela hartzen euskaraz aritzeko inizatibarik, eta, gehienez ere, hezitzaileak euskaraz hitz egiten dienean hari erantzuteko bakarrik baliatzen dutela euskara.

Gazteak hartzen du

Euskara erabiltzeko inizatiba gazteak hartzen duela diogunean, honako hau adierazi nahi dugu: gazteek, hezitzaileari euskaraz erantzuteaz gainera, beren kabuz ere hartzen dutela euskaraz aritzeko inizatiba.

Halaz guztiz, bi egoera bereizten dira:

- gazteek hezitzailearekin euskaraz hitz egiteko soilik hartzen dute inizatiba: gazteak beti euskaraz erlazionatzen dira hezitzailearekin; hau da, euskaraz erantzuteaz gainera, euskaraz hitz egiten diote.
- gazteek taldekideekin euskaraz hitz egiteko ere hartzen dute inizatiba: gazteak, hezitzailearekin euskaraz erlazionatzeaz gainera, taldekideekin ere mintzatzen dira euskaraz.

Inork ez du hartzen

Ez hezitzaileak, ez gazteek hartzen dute euskaraz aritzeko inizatiba; hau da, jarduera erdaraz gauzatzen da.

Komunikatz. gaitasuna	Erabiltzeko inizatiba	Helburu nagusiak
Gaitasun gabeak	Ez dago inizatibarik	—
Oso nekez komunikatzen dira	Hezitzaileak hartzen du	Hezitzaileari euskaraz erantzutea
Nekez komunikatzen dira	Hezitzaileak edo erreferenteak hartzen du	Beste erreferenteei euskaraz erantzutea
Nekez komunikatzen dira	Gazteek hartzen dute	Hezitzailearengana euskaraz zuzentzea
Motel komunikatzen dira	Gazteek hartzen dute	Beraien artean euskaraz egitea espazio jakin batzuetan
Motel komunikatzen dira	Gazteek hartzen dute	Beraien artean euskaraz egitea denbora tarte batzuetan
Erraz komunikatzen dira	Gazteek hartzen dute	Beraien artean guztia euskaraz egitea
Erraz komunikatzen dira	Gazteek hartzen dute	—

Lehen argitu dugun gisan, gazteen komunikatzeko gaitasuna eta euskara erabiltzeko inizatiba faktoreek diagnostikatzen dute taldearen errealitate linguistikoa eta kokatzen dute hura erabilera-urrats jakin batean. Komunikatzeko gaitasunak erakusten du taldeari dagokion erabilera-urratsa, baina erabilera inizatibak determinatzen du benetako kokapena. Eta kokapen hori izango da helburuak zehazteko, interbenitzeko eremuak identifikatzeko eta estrategiak erabakitzekeo abiapuntua.

5. ERABILERA-URRATSAK

Taldea kokatzeko urratsak hiru dira:

Erabilera atseginaren urratsa; euskaraz gutxien mintzatzen diren taldeei dagokie kokapen hori. Hezitzaileak izango du euskaraz berba egiteko inizatiba, eta gazteek aski automatikoki erantzungo diote euskaraz. Aitzitik, gazteek hezitzaileari inizatiba propioz berba egitean, gerta liteke erdara baliatzea. Gazteen arteko harremana, berriz, erdaraz izango da.

Erabilera zuzenduaren urratsa; jarduerako hainbat unetan euskaraz mintzatzen diren taldeei dagokie kokapen hori. Hezitzailearekin euskaraz erlazionatzen dira erabat; hau da, hezitzaileari naturalki hitz egiten diote euskaraz. Gazteen arteko erlazioa, aldiz, erdaraz izaten da jeneralean.

Erabilera naturalera hurbiltzeko urratsa; elkarrekin euskaraz askotxo mintzatzen diren arren erdarako joera ere baduten taldeei dagokie kokapen hori. Hezitzailearekin euskaraz aritzen dira beti, jarduerako hainbat espazio eta unetan ere bai, baina erdarak presentzia handi samarra izaten du elkarren arteko erlazioan.

Euskara erabiltzeko inizatiba hezitzailearen esku badago, erabilera atseginaren urratsean kokatuko da taldea. Inizatiba gazteen esku badago aldiz, eta nolakoa den aztertu ondoren, hau da, jardun osoan edo ez, hezitzailearekin soilik edota taldekideekin ere, erabilera zuzenduan edo berezko erabilerara hurbiltzeko urratsean kokatuko ditugu.

Urratsetik urratsera, gora egingo du gazteen hizkuntza-erabilerak, eta aldatu egingo dira helburuak, interbenitzeko eremuak eta horietan eragiteko estrategiak.

6. INTERBENTZIO-EREMUAK ETA HELBURUAK

Euskararen erabileran eragiteko garaian, behin taldea erabilera-urratsean kokatutakoan, garrantzitsua da interbentzio-eremua erabakitzea.

Eskola-orduz kanpoko jardueretan, bi dira interbentzio-eremu nagusiak:

- hezitzailearen eta gazteen arteko hizkuntzazko harremana.
- gazteen arteko hizkuntzazko harremana.

Hezitzaileen eta gazteen arteko hizkuntzazko harremana interbentzioko eremutat hartzeak adierazi nahi du ezen euskararen erabilera sustatu nahi dela erlazioan eta hizkuntzazko beste ohitura zehatz batzuk finkatu nahi direla. Ondorioz, estrategiak erabakitzeko eta aplikatzeko tenorean, hezitzailea eta gazteak elkarrekin erlazionatzen diren uneak eta espazioak hartuko dira aintzat, eta alde batera utziko dira gainerakoak.

Gazteen arteko hizkuntzazko harremana interbentzioko eremutat hartzeak berriz, euskararen erabilera sustatu nahi dela erlazioan eta hizkuntzazko beste ohitura zehatz batzuk finkatu nahi direla. Helburu nagusia jardun osoan euskaraz ari daitezen izango den arren, honela ere bana daiteke interbentzioko eremua: gazte-hiztunen erlazioa denboran eta gazte-hiztunen erlazioa espazioan.

Izan ere, behin betiko helmuga gazteak elkarrekin etengabe euskaraz aritzea izan arren, ia nahitaezkoa da, abiapuntuko zenbait egoeraren arabera, tarteko helburu batzuk ere jartzea; helburuak mailaka planteatzea. Eginahal horretan, oso lagungarria da espazioa eta denbora interbenitzeko eremu gisa hartzea; hau da, gazteek euskarazko erlazioa jarduerako espazio jakin batzuetan eta une edo denbora-bitarte zehatz batzuetan izan dezaten begiz jotzea.

Interbentzio-eremuak jakinda, oso erraza da helburuak zehaztea, interbentzio horretan eragitea edo batetik bestera pausoa ematea izango baita helburua:

Erabilera atseginaren urratseko interbentzio-eremuak eta helburuak:

1. Interbentzio eremua: Hezitzailearen eta gazteen arteko harremana.
 Helburua: Gazteek hezitzaileari euskaraz erantzutea.
2. Interbentzio eremua: Gazteen eta jarduerarekin zerikusia duten erreferenteen arteko hizkuntzazko harremana.
 Helburua: Gazteek jarduerarekin zerikusia duten erreferenteei euskaraz erantzutea.

Erabilera zuzenduaren urratseko interbentzio-eremuak eta helburuak:

1. Interbentzio eremua: Gazteek jarduerako hezitzailearekin eta gainerako erreferenteeekin duten harremana.
 Helburua: Gazteak hezitzailearengana eta beste erreferenteengana euskaraz zuzentzea.
2. Interbentzio eremua: Taldekideen arteko harremana jarduerako espazio jakin batzuetan.
 Helburua: Gazteek beraien artean euskaraz egitea jardueraren espazio jakin batzuetan.

Erabilera naturalera hurbiltzeko urratseko interbentzio-eremuak:

1. Interbentzio eremua: Taldekideen arteko harremana jarduerako une edo denbora-bitarte jakin batzuetan.

Helburua: Gazteek beraien artean euskaraz egitea denbora tarte batzuetan.

2. Interbentzio eremua: Taldekideen arteko harremana jarduera guztian.

Helburua: Gazteek beraien artean euskaraz egitea jarduera guztian zehar.

Interbentzio-eremu horietan, progresiboki lan egin behar da. Lehenbizi, erabilera atseginaren urratsekoetan aritu behar da; hurrena, fase hori gaingintzat jotzen denean, erabilera zuzenduaren urratsekoetan, eta, azkenik, erabilera naturalera hurbiltzekoetan.

Komunikatz. gaitasuna	Erabiltzeko inizatiba	ERABILERA URRATSA	Interbentzio eremua	Jardueraren intentsit.	Taldeko hezitzaile.	Helburu nagusiak
Gaitasun gabeak	Ez dago inizatibarik	EZ DAGO ERABILERARIK	Ez dago interbentziorik	Txikia	Ez onartua	---
Oso nekez komunikatzen dira	Hezitzaileak hartzen du	ERABILERA ATSEGINAREN URRATSA	Gazteen eta hezitzailearen arteko harremana	Ertaina	Onartua	Hezitzaileari euskaraz erantzutea
Nekez komunikatzen dira	Hezitzaileak edo erreferenteak hartzen du		Gazteen eta beste erreferenteen arteko harremana	Ertaina	Erreferentea	Beste erreferenteei euskaraz erantzutea
Nekez komunikatzen dira	Gazteek hartzen dute	ERABILERA ZUZENDUAREN URRATSA	Gazteek hezitzailearekin eta beste erreferenteekin duten harremana	Ertaina	Erreferentea	Hezitzailearengana euskaraz zuzentzea
Motel komunikatzen dira	Gazteek hartzen dute		Gazteek taldekideekin espazioan duten harremana	Handia	Erreferentea	Beraien artean euskaraz egitea espazio jakin batzuetan
Motel komunikatzen dira	Gazteek hartzen dute	ERABILERA NATURALERA HURBILTZEKO URRATSA	Gazteek taldekideekin denboran duten harremana	Handia	Aszendentziak erreferentea	Beraien artean euskaraz egitea denbora tarte batzuetan
Erraz komunikatzen dira	Gazteek hartzen dute		Jardun osoko harremana	Handia	Erreferentea	Beraien artean guztia euskaraz egitea
Erraz komunikatzen dira	Gazteek hartzen dute	ERABILERA NATURALA	Jardun osoko harremana	Ertaina	Onartua	---

7. ESTRATEGIAK ETA TRESNAK

Hezitzailearen taldeko kokapena

Eskola-orduz kanpoko jardueretan euskararen erabilera sustatzeko proposamenetara heltzeko, nahitaezkoa da, halaber, hezitzaileak taldean zer leku hartzen duen aztertzea eta helburuak lortzeko bidean zer egiteko izan dezakeen ondorioztatzea.

Hezitzailea taldeko zentroa izatea

Hezitzailea taldeko zentroa izango da, baldin ekintza bat aurrera ateratzeko haren gidaritza ezinbestekoa bada. Jarduera baten barruan, anitz ekintza gauzatzen dira, eta batzuk hezitzaileak arautu eta zuzendu ohi ditu: horrela denean, hezitzailea taldeko zentroa dela esango dugu.

Hezitzaileak, taldeko zentroa denean, eragin handia du gazteengan eta taldearengan. Erdian kokatua dagoenean, hizkuntza aldetik ere influentzia handia du, zeren harreman handia izan behar baitu gazteekin eta haientzat ezinbestekoa baita hezitzailearekin komunikatzea.

Hezitzailea taldeko partaide izatea

Hezitzailea jarduerako ekintza batean gazteekin batera aritzen denean; hots, taldekide gertatzen denean; taldeko partaide dela esango dugu. Jardueraren barruko ekintzetan, badira hezitzailea arautzen eta zuzentzen aritu ordez, parte hartzen aritzen den tartearak.

Hezitzaileak, taldeko partaide denean, nahiko eragin handia izan dezake gazteengan eta taldearengan. Izan ere, zuzeneko erlazioa izango du, eta, oro har, egoera nahiko informalean, gainera. Partaide den kasuetan, hizkuntza bideratzen saiatu behar du hizketaldiak sortuz, gidatuz, osatuz, erabilera bermatzeko akuilu izanez...

Hezitzailea taldetik kanpo egotea

Hezitzailea taldetik kanpo egongo da, baldin, gazteak gauzatzen ari diren ekintza batean, zentroan ez badago eta partaide ere ez bada.

Hezitzaileak gutxi eragin dezake taldetik kanpo, ez baitago gazteekin harremanetan. Kasu horretan, hezitzaileak jakin behar du nekez eragingo duela erdaraz mintzatzen ari den gaztearengan, baina belarria erne izan behar du gazteak nola mintzatzen diren entzuteko. Egoera horretan, taldekideen euskararen erabilera neurtu behar du, eta taldeko zentro eta parte izan denean erabilera sustatzeko egindako ahaleginek ondorioz izan ote duten ebaluatu behar du.

Hezitzailearen kokapenaren garrantzia

Une jakin batzuetan, jardueraren intentsitatea indartzeko ere balia daiteke hezitzailearen kokapena; gero, intentsitate erdietsia hizkuntzazko helburuak lantzeko baliatzeko. Hau da, hizkuntzazko helburu berri bat lantzeko taldean desoreka bat sortu nahi bada, jardueraren intentsitatea alda daiteke saio batzuetan, hezitzailea taldeko zentroa den ekintza gehiago programatuz. Modu horretan, hezitzaileak askoz eragin handiagoa izango du jarduerako


hizkuntzan, eta, helburuak lortuz doazen neurrian, lehengo erritmora itzul daiteke. Hezitzailea zentroa den ekintza-kopurua ugaltzea, beraz, oso tresna erabilgarria izan daiteke, baina betiere indarrak eta baliabideak ondo neurtzen badira. Izan ere, hezitzailea zentroa den jarduera asko luzaroan antolatzea oso nekagarria izan daiteke hezitzailearentzat eta gazteentzat.

8. HIZKUNTZAZKO ESTRATEGIAK

Produkzio elebakarra

Hezitzaileak beti euskaraz egingo du, eta gazteek erdaraz egiten diotenean ere euskaraz segituko du. Halaz guztiz, gaztelaniaz esaten diotena ulertu egingo du eta ulertu duenaren harira erantzungo du. Gazteak euskaraz nekez komunikatzen badira, berari euskaraz egin ahal izateko baliabideak eskainiko dizkie: galderetan erantzunak emanez, hitzen bat esan ezinik geratzen direnean aukerak eskainiz...

Gerta liteke, beraz, gazteek hezitzaileari erdaraz egitea eta hezitzaileak haiei euskaraz. Hezitzaileak ez die gazteei euskaraz hitz egiteko eskatuko, eta, hala ere, hezitzaileak hautatutako hizkuntza bakar horretan espresatzen segitzen badu, gazteek berari euskaraz egitea lortuko du.



Ulermen elebakarra

Kasu horretan, ulermenean ere elebakar moduan jokatu du hezitzaileak. Hau da, beti euskaraz hitz egingo du, eta, horrez gainera, gazteek zerbait erdaraz esaten diotenean, ez duela ulertu adieraziko die eta euskaraz adieraztera behartuko ditu.

Estrategia hori, oso eragingarria den arren, nekezago balia daiteke. Batetik, hezitzaileak une oro erne egon behar du koherentziaz jokatzeko eta erdaraz ezer ez onartzeko, eta, bestetik, gazteek jokaera hori onartzea zaila izan daiteke, baldin hezitzaileak beren erdara ulertzen duela badakite. Beraz, oso ondo neurtu behar da estrategia hori zein taldetan eta nola erabili, eta hezitzaileak gazteentzat erreferentea izan behar du gutxienez, jokabide hori ondo onartzeko.

9. ERABILERA ARAUTUAK ETA ERABILERA HITZARTUAK

Eskola-orduz kanpoko jardueretan, arautu edo hitzartu egin daiteke euskararen erabilera, edota sistema biak balia daitezke.

Erabilera arautua

Euskararen erabilera aginduzkoa denean, nahitaezkoa izango da arautua betetzea; hots, euskara aktibitatearen espazio jakin batzuetan erabiltzea arautu bada, nahitaezkoa izango da horrela gauzatzea. Alabaina, arauak exigentziak ere berezko ditu, eta gerta liteke arau-hausleen kontrako neurriak hartu beharra egokitzea. Hortaz, bada, arauak jartzean erakundeek arrazoituta erabaki behar dute arauak nola betearaziko dituzten.

Erabilera hitzartua

Gazteen arteko erabilera sustatu nahi bada, haiek ados egotea da egokiena. Erabilera hitzartzen bada, emaitzak askoz positiboagoak izan daitezke. Erabilera hitzartzeko, gazteek helburuen berri izan behar dute, eta helburuen arrazoiak berri ere bai.

Oso garrantzitsua da, bestalde, adosten dena lorgarria izatea. Adosten dena lortzeko modukoa den edo ez baloratzeko, erabilera urratsetan eragiten diren faktoreak hartu behar dira kontuan, hau da, hezitzaileak gazteekin duen harreman (erreferentea den edo ez) eta jardueraren intentsitatea. Horiek zenbat eta indartsuagoa izan eta adostu daitekeen helburua handiagoa izango da, gazteek benetako ahalegina egingo baitute eta hezitzaileak helburua lortzen lagundu baitaiezaieke (zentro edo parte kokatuz, helburua gogoratuz, ulermen elebakarra erabiliz...).

Bukatzeko, hona hemen hezitzaileek beren taldeekin jarraitu behar duten prozesu guztia adibide bat, hasi errealitatearen azterketatik eta aplikatu beharreko estrategietaraino.

Gazteen arteko erabilera sustatu nahi bada,
 haiek ados egotea da egokiena

3. ERANDIOKO BORDATXU GAZTE-TXOKOAREN SORRERA ETA IBILERA



Eguzkiñe Etxebarria
 155 posta-kutxa
 48.950 Erandio (Bizkaia)
 bordatxu-gaztetxokoa@hotmail.com

La siguiente experiencia, que se desarrolla en Erandio, se trata de la creación de Bordatxu, un espacio joven en el que adolescentes de la localidad con una edad entre 12 y 16 pueden reunirse y realizar diversas actividades en un contexto euskaldun. La iniciativa surge de un grupo de padres y madres de la asociación Berbots Erandion Euskaraz! a partir de una situación en la que sus hijos e hijas adolescentes no tienen ningún espacio educativo no formal para relacionarse en euskara fuera del entorno escolar.

Así es como surge el Gazte-txoko Bordatxu. Se alquila un local céntrico de Erandio y se contrata a una persona que se encarga de dinamizar las actividades de tiempo libre del grupo de adolescentes. Es una iniciativa con un gran éxito, ya que se ofrece al grupo de adolescentes un espacio en el que se encuentran a gusto y en el que pueden hablar, jugar, navegar por internet...

En el siguiente artículo Eguzkiñe Etxebarria nos describe todo el proceso de creación de este espacio joven, las dificultades que han tenido y la valoración de resultados de la experiencia.

1. EGITASMOAREN AURREKARIAK. BERBOTS ERANDION EUSKARAZ! ELKARTEAREN AURKEZPENA.

Berbots Erandion Euskaraz! Elkartea 1993. urtean sortu zen. Elkartea herrian euskara bultzatzeko, eta batez ere jarduera ludikoen bitartez erabilera areagotzeko sortu zen. Hala ere, antolatzen ziren ekimen gehienak helduei begira egiten ziren batez ere.

Zer da Bordatxu? 12tik 16ra bitarteko gazte euskaldunentzako Erandion kokatuta dagoen ekipamendu berria.

2. BORDATXU GAZTE-TXOKOAREN SORRERA. 2005.EKO URTEAREN HASIERAN: HAUSNARKETA.

Proiektuaren lehenengo pausoak guraso diren Berbots-kide batzuen eskutik etorri ziren. Euren seme-alaben egoeraz kezkatuta, gaztetxoaren astialdian euskarak lekua izateko gurea bezalako euskara elkarte batek zer-nolako ekarpena egin zezakeen aztertzeke eskatu zuten. BARNE HAUSNARKETA sakonean murgildu zen elkarteak.

Egitasmoaren koordinatzailea kontratatu eta INGURUNEAREN AZTERKETARI ekin genion, horren arabera EGITASMOA garatuz.

Astean 15 orduko dedikazioarekin, pertsona bat kontratatzea erabaki zen. Lehenengo eta behin eskura genituen baliabideak zeintzuk ziren jakin behar genuen. Arloaren eta egoeraren azterketa sakona egitea ezinbestekotzat jo genuen. Ingurunearen Azterketa egitea izan zen lehenengo pausoa.

Herriko baliabideak zeintzuk ziren ikertu genuen (elkarteak, eskolak, eskoletako eragileak: gurasoen elkarteak, hezitzaileak, umeak), astialdiko taldeak, kultur elkarteak, eta abar.

Aldi berean, gazteen arloan gu baino adituagoak zirengana jo genuen egitasmoa zelan gauzatu eta ardatz nagusiak zeintzuk izango ziren ganoraz finkatzeko. Horrela, Topagune Euskara Federazioko arduradun batzuekin egin genuen berba, eta esan behar dugu, benetan baliagarria izan zela beraien ekarpena. Horretaz aparte, gaztetxoentzako martxan zeuden hainbat egitasmoak bisitatu genituen, horien artean: Barakaldoko Gazte-gunera, Iralako Gazte Lokala eta Gazte-Txokoa, eta Errekaldeko Gaztelekua. Hernaniko Euskal Txokoarekin ere harremanetan izan ginen.

Beste eragile hauengandik jasotako esperientzia abiapuntua hartuta, buruan besterik ez zeuden ideiak Idatzizko Egitasmo bihurtu genituen azkenean.

Behar diren moduko diru-iturriak izateko Egitasmoa Instituzioetan aurkeztu zen: Foru Aldundian, Udalean eta Eusko Jaurlaritzan. Udalean, Euskara Zerbitzuari esker finantziazioa lortu genuen, baita Foru Aldunditik ere.

Giza baliabideak eta baliabide materialak lortu behar.

ERAGILE TALDEAREN OSAKETA

Koordinatzaileaz aparte, Eragileen Talde iraunkorra osatzea izan zen hurrengo pausoa. Horretarako Astialdi Eskola ezberdinekin jarri ginen kontaktuan, baita Udaleko Euskara Zerbitzuarekin ere. Beraingandik, erandioztarrak ziren hainbat gazteren kontaktuak lortu genituen. Gehienak Astialdi Begirale Tituludunak edo ikastaroetan ibilitakoak ziren. Inportantea jotzen genuen gazte hauek herrikoak izatea, auzoko bizitzan txertatuago zeudelako. Aukeraketa egiterako orduan, euskararekiko jarrera eta eragiteko ahalmena ere hobetsi zen, bagenekielako

holako ekipamendu batean, garrantzia handia izango zuela zer nolako eragile mota hautatzen genuen.

Alde batetik, Bordatxuko parte-hartzaileen artean, euskararen erabilera areagotzeko gai izan behar ziren. Gazteen nahiekin eta beharrekin konektatzeko ahalmena izan behar zuten eta beste alde batetik, Bordatxukideen eta herriaren arteko zubia izan behar zuten.

6 pertsonako talde finkoa osatu zen azkenean: Koordinatzailea eta 5 eragile. Astean behin, Berbotseko lauzpabost kidez osatutako batzordearekin biltzen zena egitasmoaren atal desberdinak jorratzeko eta Proiektuaren lan-ildoak finkatzeko.

BALIABIDE MATERIALAK

Dudarik gabe, prozesu honetako lanik gatzena, lokala lortzea izan zen. Berbots Elkartearen ustez, Udalak jarri behar zuen baliabidea zen LOKALA, baina saiakera batzuen ostean, eta denbora luze horren zain izan ondoren, azkenean ezezkoa jaso genuen. Hori dela eta, lokala alokatzeko erabakia hartu zen. Hala ere, Udalaren ardura izan behar delakoan gaudela ere, ezin dugu ukatu. Azken finean, Bordatxu, Institutzioek eskaini beharko zuten zerbitzua delako, elkarte pribatu batek ardura hori hartu duelako.

2005eko urtearen erdialdera ganorazko LOKALA lortu genuen, guztira 100 metrokoa, erabiltzeko prest, herriko erdialdean, gazteak mugitzen diren parke eta lekuetatik oso hurbil. Gela desberdinak zituen, espazio eta jarduerak desberdindu ahal izateko.

Lokalaren apainketa eta horniketari gogoz eta ilusioz ekin genion. Ormak margotu eta lokala garbitu ondoren mahaiak, aulkiak, apalategiak, kortxerak, besaulkiak eta dekoratzeko behar ziren gauza guztiak erosi (edo eskatu) behar izan genituen. Lokalean sartu eta hura beste leku bat bihurtu zen. Gurea bihurtu genuen lokala. Hori bai, etorriko ziren gaztetxoei dekoratzeko eta gauzak aldatzeko aukera eta espazioa utziz.

Eztabaidak izan ziren gure artean ia telebista egon beharko zen, ia playstation-ik edo ordenagailurik... internetik bai ala ez... Azkenean ordenagailuak sartzea onartu zen, internet eta guzti baina playstation-ik ez. Beranduago ordenagailu eramangarria eta kanoia erosi da, gaztetxoek eskaerari erantzunez, domekaren baten euskarazko filmak edo grabatutako telebistako programaren bat ikusi ahal izateko. Orduan, falta zitzaigun bakarra gaztetxoak ziren. Eta horretarako komunikazio kanpainari ekin genion.

Egitasmoaren gizarteratzea. Publizitatea.

Herriko Ikastetxeko arduradunekin bildu ginen Bordatxu Proiektua aurkezteko eta hedapenean beraien laguntza eskatzeko. Udaleko Euskara Zerbitzuaren partez be laguntza handia izan genuen.

Komunikabidetara ere jo genuen informazio zabaltzeko, herria kartel erakargarri jostez gain.

Azkenik, gure helburua ziren 12tik 16ra bitarteko gazte guztiei gutuna bidali zitzaien lokalaren aurkezpen jaiera gonbidatuz. Horrela, 2005eko urriaren 28an zabaldu zituen atearak BORDATXU GAZTE-TXOKOAK.

3. BORDATXU GAZTE-TXOKOAREN IBILERA

BORDATXU GAZTE TXOKOAREN AURKEZPENA

Bordatxu Gazte Txokoak herriko nahiz kanpoko 12 eta 16 urte bitarteko gazteentzat ditu zabalik atearak. Elkarrenganako errespetua eta euskara erabiltzea dira baldintza bakarrak. Euskaraz berba egiteko konpromisoa eskatzen zaie gazte txokora etortzen diren gazteei, Berbots Erandion Euskaraz! elkartearen helburu nagusia den herrian euskarari lekua egitea delako.

Hori kontuan izanda, erronka zaila genuen. Gazteak erakartzea zaila izango zela aurreikusten genuen, alde batetik, adin tarte zail batean mugituko ginelako eta, bestetik, klasetik kanpo euskara erabiltzeko joera eskasa antzematen dugulako bereziki adin honetan. Baina erronka hori hartu genuen eta emaitza positiboak jaso ditugu.

LOKALAREN BALIABIDEAK

Bordatxu Gazte Txokoaren lokalak 100 m² azalera dauka eta honela banatuta dago: 2 gela nagusiak: kanpoko gela eta egongela, bulegoa, 2 komunak eta biltegia.



Gazteak erakartzea zaila izango zela
aurreikusten genuen

Kanpoko gela: Kaletik sartu eta lehenengo gela, gutxi gora behera 33 m²-koa. Bertan *internet txokoa* dago. Honetan 4 ordenagailu daude; interneten nabigatzeko, marrazkiak egiteko, argazkiak ikusteko eta ordenagailuak eskaintzen dituen aukera guztiez baliatzeko.

Honetaz gain, tailerrak egiteko hiru mahai daude (**tailer txokoa**). Mahaiak tolesgarriak dira, bestelako ekitaldirik egin nahi izanez gero erraz moldatzeko edo alde batera uzteko modukoak. Horrekin batera, hainbat apalategi daude materiala utzi ahal izateko. Tailerrentzako mahai hauek, batzuetan, ping-pong tolesgarrian bilakatzen dira.

Azkenik, gela honetan **informazio txokoa** ere badago. Lokalean sartu eta ezkerraldeko horman, guztion begi bistan, iragarki-ohola daukagu, Erandion eta inguruko herrietan antolatzen dituzten gazteentzako ekitaldien informazioa (hitzaldiak, ikastaroak, kultur agendak, lehiaketak...) eta gazteek euren proposamenak agertzeko.

Gela hau zabala da, kaleko argia daukana eta aukera handiak ematen dituen.

Egongela: Lokaleko espaziorik handiena da. Guztira 55 m² ditu, eta gela honek jarduera desberdinak egiteko aukera ematen digu: hitzaldiak, zinema, jokoen txapelketak, ekitaldi bereziak... Hauek antolatzeko ordenagailu portatila eta proiektorea dugu.

Gela honetan txoko ezberdinak daude:



Egongela txokoa: Txoko hau ez da soilik bertan egoteko lekua; aukera gehiago eskaintzen duen toki da. Bertan, sofak, aulkiak eta mahaia daude hainbat mahai jolasekin (Badakit, Matraka, Euskarbel, Nor da Nor, Euskopoli, Xakea, Partxisa, Mahai-futbola, Damak, Kartak...). Leku honetan elkartzeko dira eta harremanetarako berebiziko txokoa da.

Musika txokoa: gazteek lokalean dagoen musika edo etxetik ekarritakoa entzun ahal dute bertan dagoen musika katean. Beti ere beraiek protagonista izanda eta haien gustuak nagusi izanda.

Azkenik, **prentsa/irakurketa txokoa** ere badugu. Euskaraz argitaratutako aldizkariak (Xirika, Gaztetxulo, Luma, Elhuyar, Matraka...), prentsa (Berria...) kontsulta liburuak eta komikiak (Asterix, Gabai, Tintin...) dauzkate eskura. Euren proposamenei jarraituz erosi ditugu.

Bulegoa: Aurrerago sartuta, ezker aldean, bulegoa dago. Toki txikitxo honetan, 5 m²-koa, eragileek erabiltzen duten ordenagailua dago. Hauxe programazioak, kartelak, gazteen erregistroa, eta abar egiteko erabiltzen da. Bulegoa osatzeko mahaia, armairua eta beharrezkoak diren gainontzeko gauzak daude.

Komunak: Bi komuna ditugu. Bat bulegoaren aurrean dago eta bestea egongelaren alboan.

Biltegia: Lokalak daukan altura aprobetxatuta goialdean ateratako Gelatxoa da. Bertan, materiala gordetzen dugu.

Lokaleko kanpoaldea aprobetxatzen dugu hainbat ekintza prestatzeko. Bordatxu arkupetan kokatuta dago; eta honek aukera ematen digu espazio handia eskatzen duten ekintzak antolatzeko.

PROGRAMAZIOA

Eragileek gazteentzako erakargarria eta aldi berean, zehaztutako helburuekin bat datorren programazio bat eratu behar dute. Horrela, antolatutako programazioan helburu desberdinekin bideratutako ekintza ezberdinak garatu behar dira.

Gure programazioan tailerrak, ikastaroak, irteerak, lehiaketak, bideo emanaldiak eta autogestiorako egunak ezberdintzen ditugu. Honetaz gain, egun berezietan jaitxoak ere antolatzen ditugu.

Programazio hauek gazteen iritzia kontuan hartuta antolatzen ditugu beti ere.

Programazioa antolatzerako orduan inguruaren azterketa egien dugu; hau da, egun horretan herrian zer edo zer antolatuta dagoen...

antolatutako programazioan helburu
desberdinekin bideratutako ekintza
ezberdinak garatu behar dira

Honen osagarri moduan, autogestio egunak ere ezarrita daude programaketan. Egun horietan, gazteekin biltzeko aprobetxatuko dugu. Bilerak ez-formal horietan gazteen gustuak ezagutu eta euren proposamenak jasotzen ditugu, gero horretan oinarriturik programazioa antolatzeke eta barne funtzionamenduetarako arauak ezartzeko, denon artean adostutako akordioetan oinarrituta. Hots, Gazte Txokoan gertatu izan diren aldaketak, sortu diren arazoak, eta abar taldean tratatu ditugu, parte-hartzaileen arteko harremanak eta euren eta eragileen artekoak, errespetuan oinarrituak izan daitezten.

ERABILTZAILAILEEN PERFLA

Gazteak erakartzea zaila izango zela aurreikusten genuen. Baina aurreikuspen guztiak gaindituz, Bordatxuk harrera ezin hobea izan du herriko gazte mordo baten artean, eta hasierako eztanda pasa ostean urte amaieran 63 bazkide finko ditugu.

Ondoko lerroetan azalduko ditugu bazkideen ezaugarriak:

Egitasmoa adin-tarte zabal bati begira diseinatu arren, esan behar dugu parte-hartzaile gehienak azpiko adin-tarteetan daudela, hau da, 12, 13 eta 14 urteko neska-mutilak dira Bordatxuko kideak

Bazkideen sexuaren arabera, neskak zein mutilak gerturatzen dira Bordatxura baina normalean hurbiltzen direnen artean nesken kopurua pixka bat handiagoa dela esan dezakegu. Antolakuntzan, ordea, ez dago desberdintasunik, neskak zein mutilak asko inplikatzeko baitira ekintzetan

Gazte-txokoko parte hartzaileak Altxaga auzokoak dira, baten bat inguruko herrietakoa bada ere.

Bordatxura gerturatzen diren gehienek Altxaga ikastolan ikasten dute, %82,92ak hain zuzen ere. Datu hori ulergarria da, Erandio Bekoan D eredua soilik Altxaga ikastolan ematen delako.

Parte-hartzeari dagokionez, oso balorazio positiboa egiten dugu. Benetan talde jatorra, aktiboa eta parte-hartzailea daukagu, bai eragileekiko harremanetarako zein bertan egiten diren ekintzetarako.

Hasieran lagun taldetan ibiltzen ziren eta koadrilan gerturatzen ziren hona; baina apurka-apurka euren artean harreman berriak egin dituzte eta talde berriak sortzen hasi dira.

Aurten bigarren ikasturtea delarik, ikusi da bazkiderik gehienak fidel-fidelak bilakatu direla Bordatxurekin. Horrela, TALDE FINKOA osatzea lortu dugu. Honek, nolabaiteko ziurtasuna ematen digu ekintzak egiterakoan, asistentzia minimo bat ziurtatuta daukagulako. Hala ere, horrek ez du esan nahi besteei zuzenduriko ekintzak egiten ez ditugunik. Izan ere, proposaturiko irteera, tailer... eta ekintza guztiak planteatzerakoan, denak izaten ditugu kontuan.

GAZTE-TXOKOAREN FUNTZIONAMENDUA

Bordatxu Gazte Txokoak 17:00etatik 21:00ak arte zabaltzen ditu ateak ostiralero, larunbatero eta aurten berrikuntza moduan igandero ere. Aste Santuko eta Gabonetako oporretan gazteek denbora libre gehiago dutenez astean zehar ere zabalik daukagu lokala.

Oraintxe bertan aipatu dut aurten berrikuntza moduan igandetan ere zabaltzen dugula gazte txokoa. Eta zergatik? Alde batetik, eskaria zegoelako; hau da, gazteek eskatu zuten denbora gehiago zabalik egotea. Eskakizun hau kontuan hartuta, aurten erabaki dugu igandeetan ere zabaltzea eta epe luzera, emaitza onekin jarraitzen badugu, astean zehar ere zabaltzea izango litzateke helburua.

Bestaldetik, gure helburuetako bat Bordatxu Gazte txokoa ahalik eta denbora gehien zabalik egotea da; proiektua garatzeko eta handitzeko eta lokalari erabilgarritasuna emateko.

• *Bordatxuren antolaketa:*

Antolaketari dagokionez eta programazioaren atalean esandakoari jarraituz, gazteek hainbat ekintza desberdin egiten dute. Hasieran eragileen bultzada beharrezkoa izan da, baina laster gaztetxoak eurak hasi dira jarduerak proposatzen. Horien artean: tailerrak, txapelketak (twister, ping-pong, mahai-futbola...), irteerak, eta abar.

Ekintza guztiak ostiralero, larunbatero eta igandero egiten dira arratsaldeko bostetatik bederatziak arte. Honetaz gain, ekintza berezi batzuk antolatzen ditugu (irteerak...) eta hauek egun batekoak edo asteburu batekoak izan daitezke. Esan bezala, ekintza hauek guztiak Bordatxu Gazte-txokoak duen lekalean burutuko dira, ekintza bereziak izan ezik (hauek kalean edo beste toki batean gauzatuko dira).

Prestatzen ditugun ekintza guztiak Bordatxun dauden eragileek antolatzen eta bideratzen dituzte. Hala ere, ekintza batzuk kanpotik etorritako begirale edo eragileek bideratzen dituzte, Bordatxuko eragileen lana ekintza zuzentzea den bitartean.

• *Barne-antolaketari dagokionez:*

Bestalde, eragileak astero biltzen gara proiektu honetaz arduratu den Berbots kide taldearekin Bordatxuko gorabeherak aztertzeke, lan illoak zehazteke eta jarraipena egiteko. Honetaz gain, eragileak hamabostero biltzen dira koordinatzailearekin datozen asteburuetarako programatuta dagoena prestatzeke. Proiektua martxan jarri berria denez, sortu ahala bilatu behar dira eguneroko gorabeherentzako erantzun egokiak, aurreko eskarmenturik gabe. Proposatutako aterabideak martxan jarri ondoren ebaluatu egiten dira, egokiak izan diren ala ez aztertzeke.

GAZTEEN ARTEAN EUSKARA SUSTATZEKO ESTRATEGIAK

Bordatxura gerturatzen diren gazte gehienek komunikazio hizkuntza, zoritxarrez, ez da euskara. Erandio bezalako desertu erdaldun batean, euskararen lorea dugu Bordatxu. Baina, zoritxarrez,

askotan desertu erdaldunak gure lorea ihartzen du eta hazten doan lorea batzuetan desertuko lehortearekin zimeltzen da.

Gure erronka: eraiki dugun loretxoan (Bordatxun) komunikazio hizkuntza uneoro euskara izatea da. Zer nolako estrategiak erabiliko ditugu gazte txokoan gazteen artean euskaraz egitea?

- Gazteak erdaraz zuzentzen direnean eragileengana eragileak “ez-ulertzearena” egitea.
- Eragileek gazteen artean erdaraz entzuten dutenean, arreta deitzea (errieta botatzea ekidituz).
- Gazteek euskara ludikotasunarekin eta aisiarekin erlazionatzea, horrela, zeharka euskara lantzen duten ekintza ludikoak prestatzea. *Adibidez, “Mihiluze” bezalako saio bat antolatzea.*
- Gazte txokoan bertan, espazio eta denbora tarte batzuk zehaztea euskara lantzeko eta jarduteko. *Adibidez, igandero 19:00etatik 20:00ak arte “Wazemank”-eko sketchak edo euskarazko film bat ikustea. Edo bi hilabetetan zehar laburmetrai bat egiteko ikastaroa prestatzea.*

4. ONDORIOAK

Bordatxu gazte-txokoaren azken urte honetako ibilaldia baloratzeko orduan kontuan hartu behar ditugu bazkidetza kopurua, gazteek erakutsitako satisfazio maila, (elkarrizketa ez formaletan, iradokizun ontzian, batzarretan, e.a.) eta eragileek egindako txostenak.

Ondorio modura ondoko puntu hauek azpimarratuko genituzke:

1.- TALDE HANDIA ETA FIDELA: gazteak erakartzea lortu dugu. 2006an 117 bazkidetza egin dugu, baina oraindik badaude bazkidetza egin barik daudenak eta normalean Bordatxura datozenak. Hortik aparte badira noizbait etorri diren neska-mutilak baina bazkideztarik egin ez dutenak. Bazkide gehienak hurbiltzen dira astebururo lokalera ostiralean, larunbatean edo igandean. Batzuk zabalik dagoen ia guztietan. Horri esker TALDE FINKOA osatzen ari gara. Bordatxu gazte txokoak askatasuna eta hainbat abantaila eskaintzen die, gustura daude eta uste dugu horrek eragiten duela gazteak Bordatxun, konpromisoak hartzeko eta proiektuan parte hartzeko prest agertzea.

2.- TALDE PARTEHARTZAILEA: proposatutako ekintzetan parte hartzeko gogoia erakusten dute gaztetxoek. Esan dezakegu bazkideen %37ak askotan edo beti parte hartzen dutela Bordatxuko ekintzetan. Aldiz, %11ak bazkidetza egin badu ere, ez du ia inoiz ekintzetan parte hartzen. Datu hauekin ikusten dugu gazteek nahiko parte hartzen dutela eta balorazio positiboa jasotzen dugu. Honekin batera, aipatu dezakegu gazteak parte hartzeko prest daude parte-hartzaile modura onartu eta tratatzen ditugunean, euren iritziak aintzat hartu eta protagonista sentitzen direnean.

3.- BORDATXU EUSKARAREN INGURUKO ERREFERENTE: Bordatxu gazte-txokoan euskarari tartea egitea lortu dugu eta giro euskalduna da nagusi. Halere, lagunartean euskaraz berba egiteko ohitura falta dute neska-mutilek eta kostatu egiten zaie euskaraz jardutea. Aurrerapausoak ematen ari gara, astialdian euskaraz hitz egitera ohitzea zaila dela badakigu; horregatik, euskararen erabilera zuzenean nahiz zeharka lantzen jarraitzen dugu. Euskara erabiltzeko ahalegina egiten dute batez ere eragileekin eta eragileak tartean direnean; euskara entzuten da Bordatxun.

4.- BORDATXU: GAZTEEN TOPALEKUA: Gazte batzuentzat topaleku bilakatu da lokala. Bordatxu gazte-txokoa hainbat neska-mutilen astialdiko agendan sartzea lortu dugu. Erandioko gazteek eurentzako txokoen beharra dute, era honetako zerbitzuen premia daukate; euskaraz hitz egiteko ahalegina ere egiten dute jasotzen duten atseginaren truke. Horregatik, Erandion gazte mordo batek hartzen du aintzat Bordatxu gazte txokoa bere astialdiko leku eta tarte modura. Gainera, gazte batzuentzat topaleku eta erreferente ere bilakatu dela esan dezakegu.

5.- BORDATXU BALORE POSITIBOEN BULTZATZAILE: Garrantzitsua ikusten dugu gazteen artean balore positiboak eta eraikitzaileak zabaltzea, edota dituztenak finkatzea. Arrazoi horregatik, ikastaro, tailer eta ekintza ezberdinen bitartez hezkidetz, besteenganako errespetua eta talde lanaren garrantzia bezalako baloreak jorratu ditugu. Horrez gain, talde lanak eta dinamikak arrakastatsuak izan dira eta elkarren arteko nahiz eragileenganako errespetua nagusitu dira. Ez da ez iskanbilarik ez arazo garrantzitsurik sortu.

6.- ELKARTEEKIKO LOKARRIA: Herriko beste elkarte batzuekin ere harremanak izan ditugu, gura gonbidatu ditugu eta horretan jarraituko dugu herrian mugitzen diren taldeen berri izan dezaten.

Aurtengo erronka hurbildu diren gazteak mantentzea eta gazte txokoaren jarduna herriko bizitzan uztartzea izan da bereziki. 2007. urtean, horretan jarraituko dugu. Ez dugunez lortu 15-16 urteko gazte talderik, orain dabiltzan nagusitxoei begira lan egingo dugu, aurrerantzean ere gazte-txokoa erabiltzen jarrai dezaten.

4. BERNEDOKO GAZTE EGONALDIAK 2007



Nagore Amondarain
 Arabako Ikastolen Federakundea
 Gaztela ataria, 101 - 01.007 Vitoria-Gasteiz (Araba)
 aif@ikastola.net

Esta experiencia es una iniciativa de la Federación de Ikastolas de Álava, se trata de unas estancias a modo de colonia para adolescentes y jóvenes desarrolladas en verano de 2007. Dentro de las actividades de verano que viene organizando la Federación de Ikastolas de Álava existía un vacío para los grupos de edad comprendidos entre los 12 y los 18 años, ante esta necesidad surge la idea de ofertar una nueva actividad atractiva para adolescentes y jóvenes.

Es así como se pone en marcha la experiencia desarrollada e Bernedo. En dos tandas durante el mes de julio un grupo de jóvenes han podido disfrutar de una serie de actividades como la grabación de cortometrajes, de programas de radio, elaboración de graffiti, un curso de blogs... y todo ello en euskara.

Nagore Amondarain nos describe detalladamente como han sido estas "Gazte Egonaldiak 07" de Bernedo.

1. SARRERA: EGOERAREN AZTERKETA

Ikastolen Elkarteko udako hizkuntz eskaintzetan adin tarte bat gehitu behar zela ikusi zen Arabatik, gutxi baitziren ordura arte egiten ziren saiakerak euskararen erabilera lantzeko adin tarte horretan. Beraz, beren beregi euskararen motibazioan eragingo duten egonaldiak sortzeko asmotik etorri ziren GAZTE EGONALDIAK.

Adina	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	
5-12								Gazte egonaldiak 07							Bemikuntza! 12-17
	Enjoy English														
			8-12	Euskal Udalekuak											
				10-18	Ingeles Udalekuak										
								13-18	Frantses Udalekuak						
								13-18	Atzerriko egonaldiak						

“Ikasleak, euskara ongi menderatuz eta euskara eta euskal kulturaren transmisio, garapen eta potentziazioan jarrera aktibo bat hartzera eramango dituen formazio euskaldun batekin irtengo dira Ikastolatik”

IKASTOLA: izaera eta egitura liburuan aipatzen den ikastolen helburuetako bat.

“euskara erabiliz eta ongi menderatuz, euskararen eta euskal kulturaren transmisio, garapen eta potentziazioarekin konprometitua...”

Altsasun 2001. Plan Integrala (2002-2007), Ikastolaren xedea, 1.2.

Beraz, ikastolen xedea gizartean eragina izatea da, eragin euskaltzalea, hiztun euskaldunen komunitatea sendotzea, ikasleen euskararen ezagutza ez ezik erabilpena ere bermatzea.

Orain arteko hutsune bat ase-betetzera datoz udako egonaldi hauek. Hizkuntza udalekuak ugariak diren arren gure artean, beren-beregi euskararen motibazioan eragiteko udalekuak gutxi izaten dira.

Gure ikasleei euskararen aldeko jarrera positiboaren sentimendua sustatu nahi diegu, baina sentimendu onak jantzi eta hornitu egin behar dira, arrazoiz eta argudioz. Euskal Herriko errealitate soziokultural eta soziolinguistikoa kontuan hartuko duen ikuspegitik antolatu nahi izan dira egonaldiok. Jakin badakigu, hizkuntza ikastea berau erabiltzeko ezinbesteko baldintza dela, baina ez da nahikoa. Eta kontuan hartu nahi ditugu, bereziki, zonalde euskaldunetan bizi ez diren haur eta gazteak.

2. EUSKARA HELBURU

Esan dugun moduan erabileran bi faktorek hartzen dute parte; gaitasunak eta jarrerak. Gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko ekimen berri guztiak ongi etorriak izaten dira, baina betiko formula bati ekin nahi izan diegu Ikastolen Elkartetik, udalekuen formulari hain zuzen, udalekuen ideia apur bat aldatuz. Udako edo astialdiko egonaldiak euskara helburuak lehenetsiz antolatzea izan da gure aurreneko helburua.

Txepetx abiapuntuan

Jose M^a Sanchez Carrionek, Txepetxek, garatutako ideietan oinarritu gara. Hau da, hizkuntza hiru faktore ezberdinen eraginez ikasten dela:

Motibazioa: ikastera bultzatzen duen arrazoia, nahi eta beharrek osatzen dutena.

Ezagutza: hizkuntzaren barne funtzionamenduaren ezagutza da. Ezagutza osoa lortzeko arlo formalean zein ez formalean nahikotasun maila beharrezko da.

Erabilera: erabiltzearen ekintza. Egoera normalizatuan, bizitzako esparru guztietan beharrezkoa litzateke berau.

Baina ikasketa prozesuak bi ibilbide ditu.

- Berezko ibilbidea: Haurrak txikitatik egiten duen ibilbidea. Inguruan entzuten duena erabiliz ekiten dio hizkuntza ikasteari.
- Ibilbide kulturala: Helduaroan egiten den ibilbidea hizkuntza bat ikasi nahi denean. Edo gure ikasleen kasuan, 10-12 urtetik aurrera, behin bide naturala garatuz gero hautatzen duten bidea.

Hizkuntzaren jabekuntza osoa eman dadin, hiztunak ibilbide biak egin behar ditu. Ez dezagun ahaztu ezagutza oso hau gabe zaila dela hizkuntza trebeziak edo euskaraz egiteko ohitura lortzea.

Elkarren osagarri diren eta izan behar duten bi ibilbide horien gauzatzea, ikastolaren esku ere badago. Ezagutzan oinarrituta oinarrizko kontzientzia barneratzea litzateke gure zeregin garrantzitsuenetako bat, batez ere zonalde erdaldunetan, giro euskaldunean ia berez baitatoz.

Zonalde desberdinak Bernedon

Badira bi motibazio mota, motibazio instrumentala eta motibazio integratzailea.

Motibazio instrumentala: ikasketetarako beharrezkoa delako edo etorkizunean lana aurkitzeko motibazio gisa ikusten denean. Honek ez dakar erabili nahi izatea.

Motibazio integratzailea: talde sozial eta linguistikokoan integratzeko helburu finkoa dagoenean. Motibazio honek erabiltzea eskatuko du.

Azken motibazio hau beharrezkoa izaten da, talde berri batean, zonalde desberdinetako gazteak elkartzen direnean adibidez. Gazte Egonaldiak 07ko esperientzian iparralde eta hegoaldeko ikasleak izan ditugu eta euskara izan dute komunikazio tresna hein handi batean. Bestetik, lidergoa eramaten duen taldetxoa eremu euskaldunekoa suertatzen denean, gainontzekoak euren ohituretara bihurtzen dira.

3. ASTIALDIA ETA NERABEZAROA

Astialdia nerabeentzat gune erabakigarria da, une horretan euren identitatea garatzeko eta eraikitzeko aukera baitute, identitate kolektiboa zein norbanakoa.

Astialdiko bizipenek identitatea eraikitzeko garrantzizkoak dira. Helduekiko autonomia eta askatasuna da nahi duena nerabeak. Euren nahiak garatzeko espazioaren beharra sentitzen dute, horrela bertan euren erabakitze gaitasuna eta protagonismoa nagusitzen dira.

Horrekin batera, gazteek gozamina topatzen dute, egiten ari diren horrek euren nahiak ase behar ditu.

Astialdia nerabeentzat gune erabakigarria da

4. EKINTZA ERAKARGARRIAK BIDE

Beraz, aurreko bi puntuak kontuan hartuta ekintza erakargarri eta berritzaileak eskaintzea izan da Gazte Egonaldi hauen asmoa, euren gozamina asetzeko asmoz eta aldi bereaz, euskararen erabilera eta motibazioan urratsak eman ditzaten. Beraz, ikus-entzunezkoak tresna edo bitarteko bat izan dira, gazteen gozamina eta euskararekiko atxikimendua lortzeko.

Nagusiki lau ekintzatan zentratu gara 2007ko Gazte Egonaldietan:

- Laburmetraiak.
- Hala Bedi irratan irratsaioa.
- Graffitiak.
- Blog ikastaroa.

LABURMETRAIAK SORTZEN:



ekintza erakargarri eta berritzaileak
 eskaintzea izan da Gazte Egonaldi hauen
 asmoa

Espazioa eta denbora manipulatzeko saiakera ederra da ekintza hau, errealitatea itxuraldatzeko aukera guztiak zabalik uzten zaizkie gazteei. Hortik ondoriozta genezake ekintza hau burutzean hainbat helburu betetzen direla, baina aurrenekoak irudimena eta sormena. Beste helburu batzuk: lanak banatzearen ardura izatea, hartutako konpromisoak burutzea, euskarazko komunikazio trebetasunak lantzea...

Urratsak

Hasierako urratsa ideia sortzea izan da, ondoren gidoia egitea eta lanen banaketa. Handik egun batzuetara laburmetraiaren grabazioa egiten da. Tartean maila teknikoan beharrezko diren gauzak lotzen joaten dira gazteak, arropa, lokalizazioak, atrezzoak... Gidoiaren alderdiren bat eskas geratuz gero, tarteko egun horietan saiatzen dira osatzen.

Aurreneko urtea izan den Gazte Egonaldiak 07an, laburmetraiak editatzearen ardura begiraleek hartu dute. Egia esan, lan nekeza izan da, egun osoan zehar gazteen ardura izan duten artean, gaueko ordu txikiak baliatu behar izan dituzte editatzeko.

Azken egunean, sortutako laburmetraien proiektzioa egiten da. Eta behin egonaldiak amaituta, ikasleek sortutako blogean ikusgai izaten dituzte laburmetraiak. Irailean, ikastolara bueltatzean, ikaskideei erakusteko aukera hona izan daiteke blogarena.

IRRATSAIOA:

Lanketarik luzeenak irratsaioarena eta laburmetraiarena izan dira. Irratsaioaren lanketak komunikazio trebetasunak lantzea dakar: ahozko azalpenak, entzutea eta erantzutea, ezagutzak eraikitzeak elkarrizketak...

Entzuleentzat ez ezik, parte hartzaileentzat ere erakargarria izan behar du irratsaioak. Ikasleen kuriositatea piztuko duten gaietara hurbiltzea garrantzitsua izango da.

Urratsak

Hasierako urratsa irrati bat zer den ezagutzea da, horrekin batera, saio bateko eskaleta zer den ezagutzea. Ondoren dator egin nahi denaren inguruan erabakiak adostea eta lanak edo ardurak banatzea.

- Hizkuntza baliabideen oreka; zenbait gaik behar duen hizkera eta ahozkotasunaren artean oreka mantendu beharko da.
- Ahozko hizkeraren ezaugarriak kontuan hartu behar dituzte: fonetikoak, sintaktikoak, semantikoak...
- Talde lanaren kontzientzia.

Irratsaioa diseinatzerako orduan, aterpetxean, gazteek eskura izan dituzte Entzun musika aldizkariaren aleak, Gaztezulo aldizkariaren aleak, The balde... eta Berria egunkaria. Horrez gain, fonoteka txiki bat eta interneteko konektzioa. Handik egun batzuetara egiten da grabazioa.

Tarteko egunak beharrezko guztia antolatzeko erabiliko dira, elkarrizketak lotzeko adibidez.

Irratsaioa Gasteizko Hala Bedi estudioetan grabatu da. Gazteak izan dira une guztietan protagonista, esatari moduan zein tekniko moduan aritu dira.

GRAFFITIAK:

Askok giro erdalduneko zaletasun moduan duten arren, asko dira euskaraz bizi dutenak graffitiaren arloa. Guk bi euskal graffitigile eraman genituen Bernedora. Bietako bat, Garikoitz Arregi, Topaguneak (Euskara Elkarteen Federaziokoak) antolatutako Graffiti lehiaketan bigarrenarenez irabazlea izan da.



BLOG IKASTAROA:

Gasteizko Sareguneko lokaletan “blogak sortzen” izeneko ikastaroa jaso zuten gazteek. Sareguneko teknologia berriak erabiltzeko eta disfrutatzeko gunea da, hizkuntza, talde etniko, gizarte, genero edo adin mugak gaindituz. Blog ikastaroa Patxi Gaztelumendi blogariaren eskutik etorri zitzaigun.

Beste ekintza batzuk: mendialdea ezagutzen; Udako Euskal Unibertsitatea; euskaldundutako 2 lagunen bisita; kontzertuak eta bizikleta irteerak.

ARABAKO MENDIALDEA EZAGUTZEN:

Txondor eta karobiak

Gazteek Euskal Herriko ondare etnografikoaren berri izatea da aurreneko asmoa. Horretako ikazkinen eta karegileen ogibideei buruz hainbat elementu ezagutu zituzten gazteek. Arabako mendialdetik Arabar Errioxara eta aldrebes egiten zen ibilbidearen berri izan dute.

Faido eta Markinezeko koba artifizialak

Arabako mendialdeko ondare etnografikoa ezagutu nahian, V. eta VI. mendeko eremiten koba artifizialetara egin genuen bisita. Euskal Herriko gunee erlijioso zaharrenak dira koba hauek.

Koba artifizial batean egindakoa da adibidez Faidoko ermita, XIII. eta XIV. mendeetan eraikia, EAEko monumentu nazional izendatua dago.

Eskualde honek baliabide asko eta aberatsak ditu baina, aldi berean, Euskal Herriko eskualderik ezezagunenetakoa da.

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA:

Udako Euskal Unibertsitatearen laguntzaz, uztailaren 17an, asteartea, Lizarrara joateko aukera izan genuen. Bertan, “Gerra zibileko fusilatuen oroimena” hitzaldia eskaini zigun Arazandi elkarteak Mikel Errazkinek.

Helburua:

- UEU zer den ezagutzea, horretarako aurrez lanketa bat egin zen UEUko materialekin.
- Gerra Zibileko alderdi ezkutuenak azaleratzea.

EUSKALDUNDUTAKO 2 LAGUNEN BISITA:

Txanda bakoitzean, euskaldundutako bi lagun izan genituen beren bizitzaren berri ematen. Biek ere berandu ekin zioten euskara ikasteari eta egun euskaraz bizi dira. Gazteek oso ondo baloratu zituzten bi testigantzok.

5. BEGIRALEAK

5.1. BEGIRALEAK BIDERATZAILE

Hasieran esandako moduan, egonaldi hauen asmoa adin zehatz bat erakartzea izan da. Motibaziorik ezean adin horretako gazte askok euskararen mundua utzi eta erdaratara jotzen dute. Besterik ezean, aste betez, modu ludikoan euskaraz harremanetan jartzea lortu nahi izan da. Astialdia eta nerabezaroa atalean argi aipatzen da, adin honetan autonomia beharrezko dutela. Beraz, euren erabakitze gaitasuna eta protagonismoari leku bat ematea beharrezko ikusten genuen.

Begiraleak bideratzaile soilak izatea nahi genuen. Eta hori askoz errazago eman ahal izan zen 2. txandakoen artean, hau da, 15-17 urte bitartekoekin. Aurreneko txandan, 12-14 urte bitartekoak, planteamendu horrekin erdi galduta ikusi izan ditugu. Erdi haur, erdi nerabe diren sasoi horretan ekintza oso gidatuak jasotzera ohituago daude, astialdian gainera, kirolari lotutako ekintzak dira arrakastatsuenak. Gazte Egonaldiek beste zerbait eskaintzea zuten helburu, sormenari lotuago zeuden ekintzak, ekintza berritzaileak, ez hainbeste fisikoak... beraz, gazteenak noraezean ibili dira.

Antolatze modu bat:

- Gaia aurkeztu; egin beharrekoa eta testuingurua.
- Taldeka bildu.
- Taldeak egin nahi duena zehaztu (hasierako zirriborroa).
- Lanen banaketa. Nork zer (ardurak hartu).
- Dagozkien ardurak burutzen hasi.
- Bakoitzaren arduren batuketak emandako emaitza besteei eskaini.

Antolaketa sinple bezain ezagun honetan, gazteenak galduta ibili dira talde moduan ideiak planteatzeko unean, zer esanik ez ardurak hartzerako unean. Eta hartutako ardurak burutzea, lan nekeza izan da, inongo duda barik.

Gazteenak ohituegi daude gidaturiko ekintzak bata bestearen atzetik jasotzera. Eta hitz horretan dago koska, **jasotzea**. Telebista, bideo joko eta antzekoek horretara bideratzen dute gazteria, modu pasiboan gauzatzen den ludikotasun batera.

Begiraleek euskararen suspertzaile onak izan
behar dute, inizatibaz eta heldutasunez
jokatuko dute

Objektua da gazte askorentzako gozamena edo astialdia. Objektua eta subjektuaren arteko harremanak izan behar du astialdiaren eta gozamenaren ardatz. Guk beste termino bat gehitu nahi izan diegu egungo gazte hauei, **eskaintzea**. Objektu bat subjektuak berak eskainita ere gozamena sor lezake, beraz, **subjektua hartzaile eta ekintzaile bihurtzea da gure asmoa**.

5.2. BEGIRALEAK EREDU

Begiraleek euskararen suspertzaile onak izan behar dute, inizatibaz eta heldutasunez jokatu dute. Begiraleak esperientziadunak izatea eskatuko da eta horrekin batera euskararen inguruko sensibilizazio izatea. Horrelako egonaldi batzuetan euskara helburu jarri nahi denean, ez da nahikoa eduki zehatz batzuk egotea, behar beharrezkoa da begiraleak egokiak izatea. Begirale euskaldunak izateaz harago doa egokitasuna, ez da nahikoa euskara maila egokia izatea, ezinbestekoa da euskaltzalea, inplikaturik eta euskal kulturaren jantzia egotea. Euskal Herriko euskararen inguruko mapa argi izan behar du begirale orok eta euskararen gaia arazotzat hartu behar du edonork, benetan eraldatzeko gogoia izateko. Bestela, guztiz egoera etsigarria izan daiteke bestelako begirale batentzat egungo gazteen euskararen erabilera eskasaz horrelako egonaldi batzuetan ohartzea. Orduan sortzen dira frustrazio eta nekeak. Egoeraren zailtasunaz jabetu behar du begirale orok, hauek ez baitira euskaraz aritzeko egonaldi batzuk soilik. Gazteen subjektibitatean aldaketak ematea baita helburuetako bat, aurreiritziak aldatu eta zaletasun berriak bideratzea ere izan behar du helburu.

Gazte hauentzat begiraleak dira eredu, beraz zelako begiraleak horrelako gazteak.

5. EUSKARAREN EGOERA NAFARROAN



Iosu Royo

Zangotza kalea, 30 – 2
 31.005 Iruñea (Nafarroa)
 gazte-ko@pangea.org

Iosu Royo, presidente del Consejo de la Juventud de Navarra, nos introduce a la situación del euskara en Navarra a través de una breve aproximación desde su evolución histórica hasta el contexto actual.

También nos ofrece cuál es la situación del uso del euskara entre la juventud navarra y en concreto en el entorno del Consejo de la Juventud de Navarra.

1. SARRERA

Euskarak Nafarroan atzerakada eta galera prozesu etengabea bizi izan du duela gutxi arte. Hainbat gertakari historiko direla medio -Gerra Zibila, Frankismo-, euskara bere azken hatsa botatzekotan egon da. Hizkuntza batek bizirauteko beharrezkoa duen estatus soziala galduta eta erabat gutxietsia eta baztertua, mundu modernorako balio ez zuen hizkuntzat hartu izan da.

Egun, eta Nafarroan agintea dutenen eskutik erasoak jasaten jarraitzen badu ere, estatistiken arabera euskararen galera gelditu da, eta, euskal hiztunen kopurua mantendu ez ezik, gora egin du.

Euskararen berreskurapen prozesu honetan zeresan handia dute, batetik, Nafarroako kulturgintzan eta euskalgintzan diharduten elkarteek (AEK, IKA, Euskalerrria Irratia, Ikastolak...) eta, euskararen aldeko jarrera eta konpromiso irmoa azaldu duten herritarrek, bestetik.


Illo horretatik, nabarmendu beharra dago Nafarroa Oinez bezalako ekimenei esker euskal ikastolen alde egiten den lana. Joan den urriaren 21ean Bianan ospatutako jaialdian, esaterako, 100.000 euskaltzaletik gora elkartu ziren *Giltza daukagu* lelopean Erentzun ikastolari bultzada emateko asmoz. Horixe baita jaialdi honen xede nagusia: ikastolen behar ekonomikoei eta euskararen hedapenari laguntzea.

2. EUSKARAREN AURKAKO ERASOAK: VASCUENCEAREN LEGEA ETA 372/2000 DEKRETUA

Esan dugunaren harira, Nafarroan gero eta hiztun gehiago ditu euskarak eta esan daiteke gizartea orokorrean euskararen aldekoa dela, baina hala eta guztiz ere, euskarak Nafarroako agintarien eskutik eraso gogorak jasan izan ditu eta oraindik ere jasaten ditu. Horren adibide garbienetako bat euskararen erabilera normal eta ofiziala arautzeko asmoz 1986an sortutako *Vascuencearen Legea* dugu.

Lege honek bere 2. artikuluan ezartzen du Nafarroako berezko hizkuntzak gaztelania eta euskara direla, eta hortaz, herritar orok eskubidea duela hauek ezagutzeko eta erabiltzeko.

Alabaina, legeak bere 5. artikuluan, mapa honetan agertzen den moduan, Nafarroan hiru hizkuntza eremu daudela jasotzen du, eremu bakoitzari euskararen erabilera jakin bat atxikiz. Horrela, eremu euskalduna, eremu mistoa eta ez euskalduna bereizten dira.



Eremu euskaldunari dagokionez, honako herri hauek osatzen dute: Abaurregaina, Abaurrepea, Altsasu, Anue, Araitz, Arantza, Arano, Arakil, Arbizu, Areso, Aria, Arike, Arruazu, Auritz, Bakaiku, Basaburua, Baztan, Bera, Bertizarana, Betelu, Ziordia, Donamaria, Etxalar, Etxarri-Aranatz, Elgorriaga, Eratsun, Ergoien, Erro, Esteribar, Ezkurra, Garaioa, Garralda, Goizueta, Huarte-Arakil, Hiriberri-Aezkoa, Imotz, Irañeta, Irurtzun, Ituren, Iturmendi, Labaien, Lakuntza, Lantz, Larraun, Leitza, Lesaka, Luzaide, Oitz, Olazti, Orbaitzeta, Orbara, Orreaga, Saldias, Doneztebe, Sunbilla, Ultzama, Urdax, Urdiain, Urrotz, Igantzi, Zubieta eta Zugarramurdi.

Eremu mistoan, Abartzuza, Antsoain, Agoitz, Artzi, Atarrabia, Atetz, Barañain, Bidaurreta, Burgi, Burlata, Deierrri, Erronkari, Etxarri, Etxauri, Egues, Espartza-Galar, Ezkaroze, Ezkabarte, Garde, Gares, Gesalatz, Goñi, Gorza, Huarte, Iruña, Isaba, Iza, Itzaltzu, Jaitz, Jaurrieta, Txulapain, Lezaun, Lizarra, Lizoain, Otsagabia, Odieta, Olaibar, Olza, Ollo, Orontze, Orotz-Betelu, Sartze, Urzainki, Uztarroze, Bidankoze, Zabaltza, Ziritza-Etxauribar eta Zizur daude.

Azkenik, eremu ez euskaldunean, gainontzeko herriak sartuko lirateke.

Euskararen normalkuntza gizartearen arlo guztietan garatu beharreko prozesua dela kontuan izanik, esan genezake lege honek ezarritako zonifikazioak prozesu horretatik at uzten dituela Nafarroako bi heren: mistoa eta ez euskalduna, hain zuzen. Alegia, Vascuencearen legearen bidez, Nafarroako Gobernuak euskara esparru geografiko jakin batera mugatzen saiatu zen, honen hedapena eta normalizazioa galaraziz.

Hori guztia gutxi balitz, 2000ko abenduaren 11n, 372/2000 Dekretua onartu zen, euskararen erabilera publikoa arautzeko edo, hobe esanda, gehiago murrizteko. Dekretu hau garatu ahal izateko Nafarroako Gobernuak bi plan discinatu zituen: bata eremu euskaldunerako eta bestea, berriz, eremu mistorako.

Bi planen helburu nagusia ordura arte ibilitako bidea desagitea zen, horretarako hainbat neurri murriztaile hartuz. Ikus ditzagun horietariko batzuk:

- **Errotulazio, bide seinale eta gutun ofizialetan** gaztelania hutsa erabiltzea, horretarako elebidunez zeudenak aldatuz; ezabatutako errotuluen artean Nafar Gobernuaren “Hizkuntza Politikaren Bulegoa”ren euskarazko errotulua zegoen.
- **Errepideetako seinaleak** gaztelania hutsez jarriko dira eremu mistoan, eta eremu euskaldunean, berriz, euskara hutsez daudenak kenduko dira.
- **Administrazioaren argitalpen, iragarki eta publizitateari** dagokionez, eremu mistoan gaztelania soilik erabiliko da, eta eremu euskaldunean, berriz, gaztelaniaz, euskaraz edo bietan egingo da kontseilariak hala eskatzen badu.
- **Inprimaki eta paper ofizialen kasuan**, idazpuruak gaztelaniaz idatziko dira eremu mistoan, eta eskatzen duten herritarrentzat edizio elebidunak argitaratuko dira. Eremu euskaldunean seinaleak, errotulazioa, zigilu ofizialak eta inprimakiak gaztelaniaz, euskaraz edo ele bietan izan daitezke, eta administrazioaren beraren esku geratzen da azken erabakia.

- **Herritarrentzako agiri, jakinarazpen eta komunikazio** guztiak gaztelaniaz idatziko dira, legeak bereizitako eremu euskaldunean interesatuak eskatuta euskaraz hasitako administrazio prozedurak salbu. Kasu horietan dagokion kontseilariak euskarazko agiriak egiteko baimena eman dezake, beti ere jatorrizko gaztelaniazko agiriaren itzulpena izango dena.
- **Herritarren ahozko arreta:** Kontseilariak herritarrei ahozko arreta euskaraz emateko baimena eman ahal izango dute, horretarako langileria egokia duten unitateetan. Herritarrak euskarazko arreta eskatu, eta Departamenduan horretarako langile gaiturik ez badago, Itzulpengintza Unitatearen laguntza eskatu ahal izango da.
- Azkenik, **lanpostuei** dagokienez, euskaraz jakitea itzultzaile eta irakasle lanpostuetarako deialdi publikoetan bakarrik eskatuko da; bestelako deialdietan, euskararen ezagutza merezimendu gisa baloratuko denetan, gehienez ere deialdiaren puntuazio osoaren %5,25eko balorazioa izango du eta ingelesa, frantsesa eta alemanaren ezagutzak %5ekoa.

Beraz, dekretu honen bidez Vascuencearen legearekin hasitako bereizketa sendotu eta indartu besterik ez da egiten. Bereizketa ez bakarrik Nafarroako biztanle euskaldun eta erdaldunen artean, baita euskaldunen artean ere. Gainera, kontuan hartu beharrekoa da eremu mistoan eskaintzen direla Nafarroako zerbitzu gehienak (ospitaleak, unibertsitatea, Justizia Jauregia), hiriburua hantxe baitago.

Euskara Kultur Elkargoak (Iruñean 1998an euskara eta euskal kultura sustatzeko asmoz sortutako elkarte) Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen 372/2000 Foru Dekretu horren kontrako helegitea jarri zuen eta, ondorioz, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak oso-osorik baliogabetu zuen forma akatsak direla eta.


Baina, Nafarroako Gobernuak, Miguel Sanz buru zuela, epaiaren erabakia ezagutu zuenean, eduki bereko beste dekretu bat onartu zuen 2003ko otsailaren 10ean, 29/2003 Foru Dekretua hain zuzen. Aipatu dekretu honen ezberdintasun bakarra zen, errotulazio elebidunaren ordezkari gaztelaniazkoa jartzeko agindua aurrekontuen arabera emango zela. EKEk helegitea aurkeztu zuen horren kontra eta 2004ko abenduan Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak Dekretuaren lau artikuluko deuseztatu zituen, Salako hiru magistraturen boto partikularrekin. Bai Nafarroako Gobernuak bai Euskara Kultur Elkargoak erabakia Auzitegi Gorenean errekurritu zuten.

Dena dela, Nafarroako Gobernuak euskararen kontra gauzatutako politika ez da hor geratzen. Aipatu beharra dago hizkuntz politikarako aurreikusitako diru publikoa euskarari bultzada emateko erabili beharrean atzerriko hizkuntzen egoera aztertzea bideratzen duela.

3. EUSKARA NAFARROAN GAUR EGUN

Zorionez, euskara zokoratzea eta museoko pieza bihurtzea beste helbururik ez duen hizkuntz politika honek gizartearen erantzuna jaso du. Horren adibide garbia da Nafarroan Haur Hezkuntzan D ereduan egindako matrikulazioek jasandako igoera. Nafarroako Gobernuak emandako datuen arabera, aurreko batxilergoan D ereduan ikasiko dutenak %24 izanen dira, DBHn %23, Lehen Hezkuntzan %26, eta Haur Hezkuntzan %28. Euskarazko ereduak gero eta arakasta gehiago duen bitartean, G ereduak (gaztelania hutsa) behera egin du.

Hemen atxikitzen den moduan, euskararen gaineko erabileraren grafika bat aurkezten da:



4. EUSKARA NAFARROAKO GAZTE KONTSEILUAN

Azaldutako egoeraren arabera, Nafarroako gazte kontseiluak oso lan garrantzitsua hartzeko beharra ikusi zuen bere sorreratik.

Lan honen oinarria euskararen normalizazioa bultzatzea eta defendatzea izan da. Horretarako bere alorrean, hau da, nafar gazte eta elkarteekin, duen erlazioa betidanik maila elebidunean izan da. Berez sinplea izan daitekeen planteamendu hau, oztopoz beteta egon da eta denbora luzez mehatxatuta, izan ere, administrazioetik jasotzen dugun aurrekontuko arduradunek ez dute ondo ikusten, itzultzaile tekniko baten beharra, are gutxiago euskara teknikari bat gurean edukitzeko. Horrexegatik, eta zoritxarrez, Nafarroako beste erakunde batzuetan gertatzen den bezala, euskara borrokarako instrumentu bat bihurtu da, honek dakarrena, hizkuntzaren eta hizlarienganako mesprezua da.

Egoera honi, aurre egiteko kontseilutik, ardura askorekin zaindu izan da komunikazioa. Hau da, arreta guztia mahai gainean jarri izan da, kontseilutik ateratzen den edonolako komunikazio, elebiduna izan dadin. Gure herrialdean erabiltzen ditugun bi hizkuntzen errealitatea ezagutuz eta hizkuntz eskubideak bermatuz. Modu honetan, gazte kontseiluko elkarteek, zein gurekin lan egiten duten eragileek, informazio guztia bi hizkuntzetan eskuragarria dute.

Nafarroako Gazte Kontseiluan, gure hizkuntz politika, argia da eta hasiera batetik definituta dago.

Oinarri bezala, gure komunikazioa, elebiduna izan dadin medio guztiak jartzen ditugu. Asteko, gure langile guztiak, euskara maila bermatua eduki behar dute, gurera hurbiltzen den edozein gazte, euskarazko erlazio erraza aukera eduki dezan, eta bide batez, gazte kontseiluko giroa euskalduna izatea lortzen dugu.

Horretaz gain, itzultzailea, guk sortutako dokumentu guztiak itzultzeaz arduratzen da, eta interesgarriak izan daitezkeen jasotako informazioa era elebidunen ipintzeaz arduratzen da. Zoritxarrez, lan postu honen jarduna murrizta da. Izan ere Nafar gobernutik jasotzen duen finantziazioa oso txikia da.

Bestalde, eta hasieratik eduki dugun erronka, batzorde iraunkorrean eta gure asanbladan euskara erabiltzea izan da. Kasu hauetan eta ahozko komunikazioan, denok ulertzen dugun hizkuntzara jotzea, normalizazioan geldiduneak sortzea da. Izan ere, lana jardunean itzulpena erabiltzea, moteltzea dakar, eta, honek desegonkortasunean jartzen du egoera. Izan ere, ezin da, asanblada eta batzorde iraunkorrean modu demokratikoan hautatuak dauden heinean, euskaldunak izatea eskatu. Orduan, epe luzerako proiektu bat bezala, euskara elkarte erdaldunetan, promozionatzea

gure komunikazioa elebiduna izan dadin
medio guztiak jartzen ditugu

beharrezkoa dela ikusten dugu eta horren arabera gure eguneroko lanean euskararen presentzia ohikoagoa bihurtu dadin.

Planteamendu guzti honi forma eta jarraipen zehatzago bat eman ahal izateko. Euskarari bai konpromisoa sinatu genuen. Agiri honen bidez, euskararekin dugun konpromisoa forma erreal bat eman genion eta behar bezala jarraitzen ditugu ematen diren aldaketak, bai onerako eta bai txarrerako. Bide honi jarraiki, urtero, berritzen ditugu gure konpromisoak, eta posible den heinean helburu hauek zabaldu.

Lehen komentatu dudana bezala, euskara gure elkarteetan sustatzeko proiektu bat sortu inguruan gabilta. Hau da, elkarteetan propioki eta gure herrialdeak duen aniztasunarekin ispilu bezala, bere hizkuntz politikak sortzeko helburua izango duen proiektua sortzean datza. Momentu honetan gure errekursoekin, ezin dugu ideia hau aurrera eraman baina ez dugu deskartatzen modu xumeago batean euskararen erabilera sustatzea.

6. GAZTEAK ETA EUSKARA ASTIALDIAN



Argi eta Maia Aurtenetxe
 Zabalbide, 26
 48.006 Bilbao
 urtxintxa@urtxintxaeskola.org

En las Jornadas sobre cómo trabajar el euskara desde el tiempo libre Urtxintxa Eskola nos presentó una serie de recursos educativos a los que pueden recurrir los grupos de tiempo libre.

Pero además de estos recursos que se pueden utilizar en la educación no formal, existen otros contextos en los que la gente joven se comunica y se forma. Argi y Maia Aurtenetxe nos aproximan a esa realidad a través de una serie de ejemplos en los que nos describen la relación de algunos grupos de jóvenes con el uso del euskara.

Gure hizkuntzari buruz hitz egiten hasi baino lehen, jendartean duen egoerari erreparatu behar diogu. Euskara maite dugunontzako hizkuntza honek adierazten duenaz aparte, jendarteko beste esparru batzuetan ere, euskara prestigiodun hizkuntza da. Gaurko euskaldunak bi hizkuntzaren jabe dira gutxienez, eta euskaraz jakiteak lan on bat lortzeko bidea ere adierazten du askorentzat. Euskara, beraz, “pertsona ikasien” hizkuntza bilakatu da, unibertsitateko hizkuntza, administrazioan jakin beharreko hizkuntza... eta gure ondorengoek ikastea nahi dugun hizkuntza, guk izan ez ditugun aukerak izan ditzaten.

1. EUSKARA BEHARREZKOA

Gero eta jende gehiagok onartzen du euskara gure hizkuntza dela, gero eta jende gehiagori entzuten diogu: “bai, bai, Euskara gure hizkuntza da”. Hala ere, ondoko hau ere entzun behar izaten dugu: “gure hizkuntza da baina ez daukat ohiturarik”.

Gure lagun baten lehengusinak honela deskribatzen zuen euskaraz hitz egiteak zer suposatzen zion: “Niretzat euskaraz egitea dieta egitea bezalakoa da”. Badaki egin behar duela, badaki bere hizkuntza zaindu behar duela baina antinatural gertatzen zaio eta etengabeko esfortzu handia.

Beraz, kontua ez da euskara ez dela maitatua, arazoa beste nonbaiten dago.

Jendeak bere eguneroko bizitzan, lagunartean, dendetan, tabernetan, bankuetan, administrazioan polikiroldegietan... **agian** euskaraz egin ahalko du, baina **ziur** ez dela euskaraz egitera behartuta sentituko. Jakin badakiguna da gazteleraz hitz egiteko aukera egongo dela.

Beste lagun bati gauza bitxi bat gertatu zitzaion gai honen inguruan Gasteizko unibertsitatean. Neska Japoniar bat hurbildu zitzaion laguntza eske, idazkaritzakoak ez ziolako tutik ere ulertzen, izan ere, Japoniar honek Euskal Herrira etortzeko Japonian euskara ikasi zuen eta hau zen hemen komunikatzeko zeukan bide bakarra. Azkenean, lagun honek, itzultzaile lana egin behar izan zuen.

Egoera hau guztiz anekdotikoa da, bertako guztiok gazteleraz dakigulako.

Beraz, esan daiteke, euskara EZ DELA BEHARREZKOA eguneroko bizitzan, eta hori da masak euskaraz aritzera bultzatzen ez dituen, salbuespenak salbuespen (Ondarru, Azkoitia...).

Hau ikusita, hurrengo ondoriora iristen gara: Euskal Herria euskaldundu behar badugu, euskara **beharrezko** bihurtu behar da, hau da, gure inguruan dagoen jendeak euskara erabiltzen ez badu, gabezia bat daukala sentitu behar du, Ingalaterrara doanak ingelesez ez badaki komunikatzeko ezintasuna sentitzen duen bezala. Lortu behar duguna da, egoera anekdotiko hauek egunero gerta daitezkeen egoera bilakatzea, hots, lehen aipatutako idazkari horrek, egunero horrelako egoerei aurre egin behar izatea.

2. KONPROMEZUA

Hau guztia lortzea ez da batere erraza, baina abiapuntua, zalantzarik gabe, konpromisoa da. Konpromisoak, noski, ahalegina suposatzen du. Konpromisoa egunerokoa eta etengabekoa izan behar da. Konpromisoak une oro adi eta erne egotea eskatzen digu. Kontuz!! Konpromisoa ez da batere erraza.

Gertatu zaizue inoiz honelakorik?

Zu: Peio! Aspaldiko!

Peio: Aupa, zer? ¿Que pasa?

Zu: Ba hemen. Medikurengana noa.

Peio: A bai? ¿Y qué te pasa?

Zu: Besterik gabe, uste dut gripea daukadala.

Peio: Jo que putada, si esta todo el mundo igual.

Zu: ...

Peio: ...

Noiz arte jarraitu dezakezu horrela? Ba al daukazu tirabira honetan euskaraz jarraitzeko indarrik? Konpromisoa horretan datza.

Argi izan behar ditugu konpromiso honek ekarri ahal dizkigun ondorioak. Animoak prest eduki behar ditugu, komunikazio etenak asumitzeko. Gure jarrera honen aurrean erreakzio ezberdinak egon daitezke, hauen artean haserrea, urruntzea, bestea intimidatua sentitzea... eta guzti honek

euskara beharrezkoa bihurtu behar da

mindu gaitzakeen arren, egoerari aurre egin behar diogu, Euskara **PRIORITATE** bilakatu behar dugu, batzuetan harremanen gainetik jarrita ere.

3. BAKARRIK ETA TALDEAN

Aurreko honek ez du esan nahi bakarka borrokatu behar dugunik. Norbanakoak eduki behar duen konpromisoaz gain, kolektiboki ere borrokatu behar da.

- **Elkartetan:** Egituratuta dauden taldeetan, izan talde ekologista bat, izan musika talde bat, izan kirol talde bat, konpartsa bat edo beste edozein, lehentasunen barruan euskararen presentzia egon behar da beti. Euskararenganako taldearen konpromisoa etengabe ebaluatua izan behar da, beti pauso bat aurrerago joanez, bai kanpora begira, bai barne dinamikan.
- **Kolektiboki:** Egoera ez formaletan, jaiak, poteoak, tabernak... kolektiborik adierazgarriena koadrila edo momentuan elkarrekin dagoen lagun taldea da. Talde hori erdaraz aritzen bada norbanakoaren konpromisoarekin hasi beharko gara, baina hori gaingiduta bada, talde honek euskaraz egiteari eustez gain, nola eragin dezakeen aztertu beharko du.

Erdaraz aritzen den taldearen kasuan, estrategiarik eraginkorrena desorekarena izan daiteke, hau da, talde egiturak neurri batean apurtu edo nahastu. Desoreka ohiturak apurtzean datza, hau da, euskaraz dakien taldea erdaraz aritzen bada, gehienetan ohitura hutsagatik izaten da eta nolabait arraro eta antinatural sentitzen dira euskaraz hasten direnean. Desoreka sortzeko modu ezberdinak daude. Adibidez, taldean euskaraz **ziur** egingo duten pertsonak sartzea edo taldea bera euskaraz egitera behartuta dagoen egoera batean murgiltzea (denak batera euskaltegia, ikastaro batera...). Beste modu bat taldekideek dituzten testuinguru euskaldunak beraien artean konpartitzea izan daiteke. Gonbidatu koadrilako jendea zure lagun euskaldunekin irteera: futbol taldekoak, antzerki taldea, unibertsitateko lagunak, udako herriko koadrila...

Testuinguru aldaketa oso eraginkorra izan daiteke. Aldatzeko zailena den erlazioa, hau da, familiarena ere aldatu dezake. Ezagutzen ditugu bi ahizpa, beraien artean harreman erdalduna zeukatenak betidanik. Lagun talde euskalduna konpartitzen hasi zirenez, taldean euskaraz eta etxean erdaraz egiteko dinamika hartu zuten. Egun batean, etxean ere euskaraz egin behar zutela erabaki zuten. Esan eta egin. Uste zutena baino gutxiago kostatu zitzaien, ordurako naturalizat baitzeukaten euskarazko harreman hori.

Euskararen erabilera antinaturala izatetik naturala izateko bidea pixkanaka egingo da, baina partaideek gero eta errazago irtetzen zaiela nabaritutuko dute.

Euskaraz aritzeko ohitura duen taldean argi eduki behar dugu pertsona erdaldun batek ez duela taldea erdaldundu behar. Euskaraz ez dakienarekin erdaraz egin ahalko dugu pertsonalki, baina

taldean hizketan ari garenean euskaraz hitz egingo dugu, izan ere, koadrila euskaldun asko erdaldundu dira, euskaraz ez zekiena “errespetatzeagatik”. Datorren pertsona berri hori baztertuta sentitu daiteke eta errespetu falta dela pentsatu dezake, baina ulertu behar duena da, benetako errespetu falta koadrila bati beragatik bere hizkuntza aldatzeko eskatzea dela, eta batez ere hizkuntza hau minorizatua bada.

Behin, koadrila bat ezagutu genuen euskal hiztunen herri batean. Bi koadrilak elkartu ginen eta poteo baten ostean bazkaltzera joan ginen. Halako batean ordura arte isilik egondako mutil bati haserre aurpegia nabaritu genion.

- Zer gertatzen zaizu?-Galdetu genion.
- No, es que claro, lleváis todo el día hablando en euskera y no me entero de nada.
- Ah, pero... ¿no entiendes nada de euskera?
- No, es que soy veraneante.
- ¡Ah! ¿No eres de Euskal Herria?
- Si, soy de Basauri.
- ¿Y cómo te entiendes con tu cuadrilla de aquí cuando vienes?
- Se pasan todos al castellano para que yo entienda.

Lehen euskaraz hitz egiteko ohitura zuen koadrila honek, orain, erdaraz egiten du beti.

Badaukagu, ordea, beste gertaera bat guztiz kontrakoa.

Bilbon, koadrila euskaldun batean, euskaraz ez zekien neska bat sartu zen. Hala ere, koadrila honek euskaraz hitz egiten jarraitu zuen, pertsonalki berari koadrila kideek erdaraz egiten zioten arren. Hasieran nekez ulertzen zuen koadrilan esaten zena. Gaur egun dena ulertzen du eta elkarrizketa errazak mantentzeko gai da. Hurrengo pausoa berarekin bakarka ere euskaraz aritzea litzateke.

Kolektiboaz gain, borroka indibiduala ere aipatu behar da.

- Indibidualki: Norberak, euskaraz dakitenekin euskaraz egin behar du **beti**, horretarako ezezagunekin lehenengo hitza euskaraz izan behar da. Bestela, batzutan ezusteak suerta daitezke, lotsagarri uzten gaituztenak.

Lagun bat Deustun, gaupasaz, koadrila batengana hurbildu zen zigarro bat eskatzera.

- Aizue, zigarro bat mesedez?

- Pero tia, que dices, que no te entiendo. Si ese idioma no lo habla nadie.

Gure lagunak buelta eman eta dena entzun zuen tipo beltz bat ikusi zuen, berarengana hurbildu eta...

- Perdona, ¿tienes un cigarro?

- Bai, eta badakit eskaraz.

Beste lagun bat Bilbo erdialdeko kafetegi batera joan zen.

- Hola, un café por favor.

Bat-batean bere sakelako telefonoak jo zuen eta lagun batekin hasi zen euskaraz hizketan. Elkarrizketa bukatu zuenean tabernaria hurbildu zitzaion.

- Badakizu euskaraz ala?

- Bai.

- Ba ez dut ulertzen. Zergatik ez didazu kafea euskaraz eskatu?

Hau lotsa! Pentsatu zuen, eta arrazoi osoa zuela esan zion.

Euskaldunak ez direnei ere oinarrizko gauzak exijitu ahalko dizkiegu, “kafesne bat” esaldia ulertzea ez baita hain zaila, are gutxiago ere tabernari batentzat. Minimo batzuk exijitzea beti dago ondo.

Gogoan daukagu lagun alemaniar bati gertatu zitzaiona, askotan, bertakoak egitera ausartzen ez garena, kanpotarrek egiten dute.

Lagun alemaniar hau euskaltegian zebilen. Egun batean okindegira joan zen ogia eroatera.

- Aupa, ogi bat mesedez.

- ¿Perdona? No te entiendo

- Ogi bat (atzamarra altxatuz).

- No entiendo nada

Orduan gure lagunak zera esan zion gazteleraz:

- Perdona señora, pero yo creo que para trabajar en una panadería la palabra OGIA es bastante básica.

Aurretik aipatutakoaz gain, aurrez-aurreko komunikazioaz aparte beste konpromiso mota batzuk ere badaude. Norbanakoak gauzak sortzen dituenean ere (blogak, web orriak, artikuloak...) euskarazkoak izan behar dira. Gainera, euskarazko tresnak erabiltzen saiatu behar gara (liburuak, bideoak, egunkariak, internet, jokoak...).

Eta horrez gain, zalantzarik gabe, administrazioan eta zerbitzuetan (publikoak zein pribatuak) euskara exijitu.

Ezagutzen dugu kirol elkarte bat bertako partaide gehienak erdaldunak direnak. Hala ere, gutun, kartel, idatzi... guztiak elebidunak egitea erabaki zuten, horrek suposatzen zuen esfortzuarekin, gehienek ez baitzekiten euskaraz. Udaletxeari dirulaguntza eskatu ziotenean ere, dena bi hizkuntzatan bidali zuten.

Dirulaguntza ez zieten eman, beraien proiektuan euskara bultzatzen ez zelako. Baina hori ez da grabeena. Udaletxeak bidalitako gutun hori gaztelera hutsean zegoen idatzita.

Erreklamazioa bidali zuten, mesedez euskaraz erantzuteko eskatuz eta erantzuna berriro ere erdara hutsean jaso zuten. Talde honek bere erreklamazioekin aurrera jarraitu zuen eta udaletxeko euskara teknikariekin ere hitz egin zuen, gutuna euskaraz jasotzea lortu zuen arte.

Pertsona bat, koadrila bat zein elkarte bat ondokoentzako edo atzetik datozenentzako erdua da. Gure portaera euskalduna gazte berrientzako eredu izango da. Euskal Herrian sortu zen lehen Rock talde euskaldunaren atzetik, adibidez, milaka sortu ziren. Esan bezala, eredu hau, bai indibidualki bai kolektiboki eman daiteke (koadrila bat bere herrian, pertsona bat bere koadrilan...).

Eguneroko kontuak euskaraz egin ahal izateko, besteekin euskaraz egiteko aukeraz gain, euskarazko tresnak ere izatea ezinbestekoa da

4. TRESNAK SORTU

Eguneroko kontuak euskaraz egin ahal izateko, besteekin euskaraz egiteko aukeraz gain, euskarazko tresnak ere izatea ezinbestekoa da. Egunkaria irakurri nahi badut, euskarazko egunkari bat egon behar da, aldizkariak, blogak, hitzaldiak, ikastaroak, musika, web orriak, internet, foroak, irriatiak, telebista, eleberriak, liburuak, jokoak, jolasak, gazte udalekuak...

Ezin da tribialean euskaraz jolastu euskarazko tribialik gabe. Tresna hauek sortzen guztiok parte hartu dezakegu, elkarteek, norbanakoek, instituzioek... (azken hauek presionatu behar dira).

Urtxintxa eskola, bere aldetik, tresna hauetako batzuk sortzen eta zabaltzen saiatzen da, horrela, euskararen bultzadan bere pauso txikia emanaz.

Bertan eskaintzen den tresna nagusia formakuntzarena da. Begirale ikastaroak, hezkidetzak, kulturartekotasuna... denak euskaraz. Azken helburua, aisiaren eremuan, profesional euskaldunak sortzea da.

Ikastaro guzti hauen artean, badago bereziki euskarazko tresnak eskaintzera bideratuta dagoen bat, EUSKAL JOLASENA, alegia. Jolastea, adin guztietan dibertigarri gertatzen zaigun jarduera da, baina askotan euskarazko baliabideak falta zaizkigu: mahai jolasak, kantanak, zotz egiteko formulak, soka saltoa... Urtxintxa eskola hutsune hauek betetzen saiatzen da.

Bestalde, Urtxintxa eskolatik, tradizionalki erdaraz erabiltzen diren jokoak ere euskaraz erabiltzera gonbidatzen zaituztegu, guztiok baikara gai hauek moldatzeko, imajinazio pixka bat besterik ez da behar.

Beraz, bakoitzak ahal duen neurrian euskaldunduko du bere ingurua. Bakoitzak ikusi behar du bere esparruan noraino heldu daitekeen, baina kontuz alferkerian erortzearekin edo aitzakia faltsuak sortzearekin. Beti egin daiteke gehiago, beti dago hobetzeko, horrek esfortzua suposatzen duen arren.

7. HAINBAT ONDORIO, HAINBAT GOGOETA



Ane Olabarri
 Zabalbide, 26
 48.006 Bilbao
 euskara@urtxintxaeskola.org

Puri purian dagoen gaia da hemen aurkeztu zaiguna. Astialdia gure jendartean garrantzia hartzen joan den heinean, esparru honetan dagoen euskararen erabilera eskasaren kezka ere areagotzen joan da, eta horrenbesteko inportantzia duen alorra izanik, ezin horrelako hutsunea onartu bertan.

Zenbait elkarteren, entitateren, instituzioren... baitan aurki dezakegu astialdian euskara sustatzearen helburua, eta gero eta jende gehiago ari da lanean arazo honi irtenbideren bat aurkitze aldera. Aipatu behar da ere, gauza interesgarri asko atera direla kezka honek eraginda, baina kontuz ibili behar dugu teoria eta hausnarketa hutsean ez erortzearekin. Ezagutzatik erabilerarako pausua defendatzen dugun maila berean defendatu beharko genuke teoriatik praktikarako bidea, hor aurki baienezakeelako benetako soluzioa.

Bost esku eta herri desberdinetatik heldu zaizkigu gai honen inguruko gogoetak, esperientziak eta abar eta denetan dago zer pentsa eta zer nabarmendu.

Ondorio orokor batekin hastearren, azpimarratu, euskararekiko jarrera eta erabileraren artean dagoen jauzia, hori baita arazo honen oinarri kezkagarrienetako bat. Maia eta Argi Aurtenetxek jartzen duten adibidean bezala “gure hizkuntza da baina ez daukat ohiturarik” da gure inguruan antzeman daitekeen errealtatea. Gaur egun ezagutzarena ez da arazo larria, izan ere, gero eta jende gehiagok ikasten du euskara eta gainera euskaldun zaharrak ez dira falta, eta horrez gain, jendea euskaldun sentitzen da, euskara maite du. Baina ez da bere eguneroko eta edozertarako tresna. Ezagutzaren jabe diren guztiek erabiliko balute, kezka hauek ez lukete lekurik. Beraz, sentimendutik ahora pasatzeko estrategiak dira gehienbat landu beharrekoak.

Aipatutako estrategia hauetako zenbait azaleratu dira artikulua hauetan, kasu gehienetan gazteekin batez ere lantzeko estrategiak, baina ez da ahaztu behar, astialdia denon esparrua dela, eta adin tarte guztietan topatzen dugula hizkuntzarekiko hutsune hau.

Sustatze lan honetan paper garrantzitsua duen hezitzaileen lana komentatzetik hasiko gara. Eli Moreno eta Aitor Uriartek dioten bezala, hezitzaile hauek erreferente erakargarriak izan behar

kontuz ibili behar dugu teoria eta hausnarketa
 hutsean ez erortzearekin

dira, eragina izatea baldin bada gure xedea. Hezitzaileak eredu bilakatzen dira beren lanean eta uneoro hezten eta baloreak transmititzen ari dira, hortaz, oparoa da duten erantzukizuna. Nagore Amondarainek azpimarratzen duen bezala, ez da nahikoa euskara maila ona izatea, inizatiba eta inplikazioa ezinbestekoa da, hizkuntzarekiko helburuak lortu nahi baditugu behintzat. Motibazioa eragiteko, motibatuak izan behar dira, euskal kultura lantzeko euskal kulturaz jakin behar dute, Euskal Herria euskaldundu nahi badute euskaltzaleak izan behar dira, laburbilduz, egiten duten horretan sinistu behar dute.

“Bordatxu”ko proiektuan egin zuten bezala, oso egokia da hezitzaile hauek herrikoak izatea. Hurbiltasun bat erakusten dute eta artikuluan aipatzen den bezala, “Bordatxukideen eta herriaren arteko zubia” da. Herrian, herritarrek, herritarrekin eta herritarrentzat sortutako proiektua izateak berebiziko garrantzia du. Herriaren inplikazio handia suposatzen du, bertako egoera ezaguna da, motibazioa ere handiagoa izaten da, hurbileko pertsonak izanda ere eragina handiagoa izan daiteke eta gainera harremanak zabaltzeaz gain, hauek euskaraz zabaltzea ere ekar dezake. Gure inguru hurbila euskalduntzetik hasi behar dugu.

Hezitzaileen perfila aztertu ondoren, beraien lanaz eta proiektuek biltzen duten programazioaz eta metodologiak hitz egitea dator. Lehenengo eta behin, ikusi behar da egitasmoa euskarazkoa den edo euskararen motibazioan eta erabileran eragitekoa den, ez baitira berdinak. Askotan, egitasmo bat euskara sustatzeko helburuekin planteatzen da, baina oinarrian, ikusten da, planteaturiko ekintzak ez direla beren beregi euskararen motibazioan eragiteko pentsatuak, edozein motatako aktibitateak izaten dira, baina euskaraz. Hortaz, hizkuntzazko helburuak ez dira osotasunean betetzen eta hezitzaileek, euskaraz egitea dute hizkuntzazko helburu bakartzat, beste alor batzuetako helburuez gain.

Zertara datorren gogoeta hau? Bada hain zuzen, astialdian euskararen erabilera, motibazioa eta jarrera landu nahi izanez gero, espresuki hori lantzeko proiektuak sortu behar ditugulako, hau baita esparru honetan ikus daitekeen hutsuneetariko bat. Izan ere, aisialdian, orain arte euskarazko proiektuz beteriko karta dugu, baina euskararen eragiteko proiektuak ordea, ez dira horrenbeste eskaintzen ezta sortzen.

Hori esanda, hizkuntzazko helburuetan oinarritutako proiektuetan zentratuko gara bertako eginbeharren inguruan hausnartzeko, eta txosten honetan argitaratutako proiektuen protagonistak gazteak direnez, hauenganako lana aztertuko dugu. Azaldu dizkiguten bi proiektuetan, bai “Bordatxu”n eta bai “Gazte egonaldiak 2007”an ondorio berera heltzen gara. Gazteak erakartzea ez da erraza izaten eta beraien beharretara, gustuetara eta interesetara egokitu behar gara, gauza erakargarriak bilatu, eurak gustura senti daitezen eta motibazioa goian mantentzen dadin.

Bernedoko Gazte Egonaldietan adibidez, euskarak denetarik egiteko balio duela demostratzen da, proposatu dituzten ekintza berritzaileekin. Laburmetraiak, graffitiak... gazteak ez daude ohituta era honetako ekintzak euskaraz egiten, erdal munduarekin lotzen dituzte. Lortzen den helburua beraz, gozatzen duten artean konturatu gabe gazteek euskara erabiltzearena da eta horrez gain, euskararekiko duten irudia aldatzen dute. Jada ez da eskolarekin, tradizioarekin...loturiko zerbait.

Egonaldi hauetan, irratsaio baten lanketa ere planteatzen da. Ekintza honekin, aurreko helburuez gain, beste bat ere gehitzen zaiola ikus daiteke. Hizkuntza baliabideak garatzea hain zuzen. Ahozko hizkeraren ezaugarriak lantzen dira, jariotasuna landu... eta hau ere gozatzen duten bitartean, ohartu gabe.

Beste alde batetik, bi egitasmo hauetan, ez da ahazten hizkuntza kulturarekin lotzearena, eta hau ezinbestekoa da, biak lotuta baitaude. “Bordatxu”n, Euskarazko produktuen zabalpena egiten da, gazteen eskura utziz eta hauek ezagutaraziz, euskal musika, prentsa eta literaturak ere bere tokia dute... Toki hauek aprobetxatu behar dira informazioa zabaltzeko, izan ere, gazte askok ez dakite informazioa non bilatu, ez daukate gauza askoren berri (zenbait gauza existitzen direnik ere ez dakite), eta beti ez da jarrera kontua izaten. Bernedoko egonaldietan ere, geografia, etnografia, historia, kultura... ere, bisitaldien bidez lantzen da, eta modu honetan institutuko eskoletan baino modu errazago baten barneratuko dute, beste ikuspuntu batetik.

Jendarte hau gero eta pasiboagoa bilakatzen ari da, gero eta indibidualistagoa eta egin behar dena da, Maia eta Argi Aurtenetxek dioten bezala, tresnak sortu. Euskara konpartitzeko tresnak eraiki, ikastaroak, blogak, jolasak, filmeak... eta ahal izanez gero, gazteak sortzaile gisa jarri, protagonista gisa. Sormena garatzea oso garrantzitsua da eta are gehiago adin tarte honetan.

Aipatutako ekintzez gain, “Bordatxu”n adibidez, tokia ere komentatzekoa da. Inportantea da gaztetxoek euskaraz gustura eta eroso sentitzeko leku bat izatea. Eskolaz kanpo eta presiorik gabe, euskaraz erlaxatu daitezke, euskaraz harremanak egin, euskaraz jolastu, euskaraz informatu... horrela, behartuta egon gabe, errazago hel gaitezke lortu nahi ditugun helburu horietara. Hori bai, kontuz ibili behar da proiektua txoko edo lokal baten gera ez dadin. Gainera, beste helburuetariko bat euskara herrian zabaltzea baldin bada, beharrezkoa da ekintza asko herrira zabaltzea eta ateak edozeini zabaltzea. Askotan jendeari zaila egiten zaio leku itxietara hurbiltzea eta aparteko leku bat izatera pasa daiteke gazte txokoa. Horregatik, bermatu behar duguna da, gazteek lau pareta horiez kanpo ere euskara erabiltzea edo behintzat apurka apurka gazte hauek kaleetan erabiltzera animatzea.

Hezitzaileak erakutsi behar du euskara bere eguneroko eta edozertarako hizkuntza dela

Zer esan hezitzaile eta gazteen arteko harremanari buruz? Zeintzuk dira erabili beharreko estrategiak?

Bada laburbilduz, esan, azken finean euskarara erakartzea, hurbiltzea dela lortu behar dena. Zeharka landu beharrekoa dela uste dut, naturaltasun baten barruan. Ez da nabaritu behar uneoro hizkuntzazko helburuak lantzen ari zarenik. Hezitzaileak erakutsi behar du euskara bere eguneroko eta edozertarako hizkuntza dela, bera euskaraz sentitzen dela erosoan eta hori da

besteei transmititu behar diena. Eredu den heinean, Ttakunekoek aipatzen duten “koherentzia” terminoa ez ahaztea izango da lehendabiziko egin beharra. Ezin duguna egin da, gazteekin euskaraz eta gainontzeko begiraleekin erdara hutsean aritu, edo gazteei erdaraz ez duzula ulertzen esan eta gazteen gurasoekin edo albokoarekin erdaraz aritu. Horrek kontrako helburuak lortzera eramango gaitu. Gazteak animatu egin behar ditugu euskaraz egitera, baliabideak eskaini eta nola ez beti mezu positibo baten bidez. Obligatzeak gaztea aspertzera edota kontrakoa egitera eramango du, uneoro gazteen euskarazko akatsak zuzentzen ibiltzeak beren motibazioa murriztu eta konplexua areagotuko du, erdaraz ari direnean tentsioa sortzen baldin badugu hezitzailearenganako urruntasuna eta euskararenganako mesprezua ekarriko du, beraz, progresiboki euskaraz kutsatzea litzateke aurreko hau saihesteko bide bat.

Erandioko gazte txokoan erabiltzen duten estrategietako bat erdara entzuten dutenean arreta deitzea da adibidez. Arreta deitu barik, erdaratik euskarara pasatzea lor daiteke zeharkako modu batez, hau da, beraiegana euskarazko galderak eginez hurbilduz, beraien elkarrizketan euskaraz parte hartuz, baina denbora guztian erdaraz ari direla gogoratzea ez da eroso beraientzat, eta ez dute hizkuntza horrela bat batean aldatuko. Askotan, beraien eguneroko hizkuntza erdara denez, ez dira konturatzen erdaraz ari direnik, ez da nahita egiten duten zerbait, beraz, euskaraz egitera pasatzea estrategia bat litzateke, apurka apurka ohitura hartzen joan daitezen.

Hezitzaileek kontutan hartu beharreko beste gauza bat da, helburuak ez direla euskara egiten dutenean amaitzen. Behin erabiltzea lortzen badugu, gero beste pausu bat dator, motibatzea eta euskararen munduan inplikatzera animatzea. Egoeraren gainean hausnartzera gonbidatzea, euskaraz gauzak sortzera animatzea... Zikloa ez da inoiz bukatzen. Eta gauza bera, talde euskaldun euskaldunak ditugunean. Horiekin ere badago zere landu.

Gure helmuga motibazio integratzaile eta komunikatibo bat lantzea izan behar du

Motibazio hitza hainbestetan aipatu dugularik, artikulu hauetan motibazio mota desberdinak agertu zaizkigula ikusi dugu. Hauetariko batek, bi definizio ezberdin jaso dituela ere antzemango genuen. Konturatzen bagara, batetik, motibazio instrumentalak definizio hau jaso du: “Jarduerako parte-hartzaileak atsegin bat hartzen du aktibitateak; hots, parte-hartzaileari pozbide edo gogobetegarri gertatzen zaio aktibitatea.” eta bestetik “ikasketetarako beharrezkoa delako edo etorkizunean lana aurkitzeko motibazio gisa ikusten denean. Honek ez dakar erabili nahi izatea.” Diferentzia nabari da batetik bestera. Lehenengo definizioan “atsegina” hitza ageri da eta bigarrean “beharrezkoa” hitza. Argi dago bi hauek ez datozela bat. Testuinguru desberdinetan idatzitako definizioak dira, bakoitza bere testuinguruan ederto ulertzen da, baina batera irakurriz gero kontrajarriak dira. Lehenengoa, lortu nahiko genukeen helburua litzateke eta bigarrena justu, nahi ez duguna. Eta zoritxarrez bigarren hau modan dago gaur egun. Zenbatek eta zenbatek ematen dute izena euskaltegietan hizkuntza eskakizunak ateratzeko? Zenbatek eta zenbatek, titulurik gabe lanik egin ezin dutelako? Bada zoritxarrez gehientsuenak dira talde honetakoak, eta azkenean, euskara lanpostua lortzeko tresna bezala bakarrik ikusten

dute, behin titulua eskuan izanda erabiltzeaz ahazteko. Eta txarrena da hainbatek euskara gorrotatuz ere bukatzen duela. Hori da nahi duguna? Behin ezagutza dutela ziurtatuz gero ondorengo erabileraz ahaztea? Akats bat dago hor zuzendu behar dena.

Gure helmuga motibazio integratzaile eta komunikatibo bat lantzea izan behar da, hau da, jendeak taldeetan integratzeko euskararen beharra sentitu behar du, gauzak adierazteko eta komunikatzeko euskara erabiltzeko gogoia izan behar du. Maia eta Argi Aurtenetxeren artikuluan aipatzen den bezala “gure inguruan dagoen jendeak euskara erabiltzen ez badu, gabezia bat daukala sentitu behar du”.

Nafarroako kasuan adibidez, motibazio instrumentalera ere ez gara iristen, euskararen beharra ez baitago lan egiteko ere ez. Hizkuntza baten erabilera toki guztietatik oztopatzen badute, kalean ikusi eta entzuteko ere arazoak jartzen badituzte, nola kutsatuko gara hizkuntza horretaz? Agian hori da bidea beste mota bateko motibazio bat garatzeko, zapalketari aurre egin nahi dion motibazioarena, alegia. Irakurri ahal izan dugunez, oztopoen gainetik jarri den erantzun eta emaitza bat agertu da Nafarroan, D ereduko matrikulazioaren igoera hain zuzen.

Ondorioz, Euskal Herrian errealitate desberdinak ditugula ikusi dugu. Euskararen egoera aldatu egiten da herri batetik bestera, baina denetan dago zer landu eta zer hobetu. Egin behar dena da inguruaren eta ondoan daukagun errealitatearen azterketa bat ahuleziak eta indarguneak identifikatzeko, eta horren arabera helburuak markatu. Baina ez urruneko helburuak, agian eskuratu ere egin ezin daitezkeenak, hurbileko helburu txikiak lortzetik hasi behar dugu, hauek lortzen goazen heinean, gehiago garatuko baita hainbestetan aipatu behar izan dugun motibazio hori eta honekin batera itxaropena ere nagusituko da frustrazioen gainetik. Iruñean helburu bat kartelak elebitan egotea izango da, Ondarroan ordea, gazteek txisteren bat egin behar dutenean erdarara ez pasatzea, baina bakoitzak bere errealitatean eta ahal duen neurrian egin behar du lan.

Lan honek, ordea, oinarri bat izan behar du eta hor dago norberaren papera. Gugandik hasi behar dugu lanean, gure buruarekiko azterketa eta hausnarketa bat eginez, autokritika ahaztu gabe, zeren norbait konbentzitzeko norberak ere konbentzitura egon behar du, eta konpromisoak eskatzeko, norberak ere bereak betetzen jardun behar du. Azken artikuluan irakurri ahal izan dugunez, ahalegin handia da konpromisoak betetzearena, ez da batere erraza, baina azkenean tresna eraginkorra da. Artikulu guztietan agertu da euskaraz erlazionatzearena, lehenengo hitza edo kontaktua euskaraz izatearena, jendea euskaraz ezagutzearena eta horrek, bere barruan konpromiso bat hartzea suposatzen du.

Amaitzeko, esan, behintzat arazoa detektatuta dagoela eta denok onartzen dugula aisialdiaren esparru horretan ahulezia bat dagoela. Hori ikusita jendeak egoerari aurre egiteko inizatiba ere hartu du, eta ideia eta proiektu batzuk luzatu dira gaur arte. Hau guztia pausu handi bat da jadanik, gelditzen dena da, inizatiba eta lan horrek aurrera egitea bidean egiten diren akatsak onartuz eta zuzenduz eta eraginkorrak diren ekintzak nabarmenduz eta hedatuz, azken helburuak gero eta gertuago sentitzen joanez.

Lan honek, ordea, oinarri bat izan behar du
eta hor dago norberaren paper

HILZPIDEAK



foroa
astiala

Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua



Consejo de
la Juventud
de Euskadi